

Batzar Nagusia
Asamblea General



2004



EAJ
PNV

HEZKUNTZAKO TXOSTENA

HEZKUNTZAKO TXOSTENA

Orr.

AURKEZPENA	1
1. ORAINGO HEZKUNTZA SISTEMA: AURREKARIAK ETA BALANTZEA	4
1.1- 1977-2002ko balantzea	4
1.2- Oraingo egoera.....	8
2. EUZKADIKO HEZKUNTZA POLITIKAREN FUNTSEZKO FAKTOREAK	9
2.1- Gizartea eta Hezkuntza	9
2.2- Euskal familiak eta ikasleak.....	13
2.3- Ikasleak.....	14
2.4- Hezkuntza-eragileak. Irakasleak. Irakasleak ez diren langileak.....	16
2.5- Beste hezkuntza-eragile batzuk	18
3. HEZKUNTZAK ORAIN DITUEN ERRONKAK	19
3.1- Balioen Hezkuntza. Bakerako Hezkuntza	19
3.2- Hezkuntza Eleanitza.....	20
3.3- Kulturen arteko Hezkuntza eta Europar Identitatea	23
3.4- Hezkuntza digitala Informazioaren Gizartean	25
3.5- Aurrerakuntza eta lehiakortasuna. Giza Kapitala: Pertsona Nagusien biziarteko Ikaskuntza	27
3.6- Kalitatea: hezkuntza-bikaintasuneko ereduak.....	27
4. POLITIKAK ETA ESTRATEGIAK	29
4.1- Ikasketa-proiektuarekin, metodologiarekin, ebaluazioarekin eta baliabide didaktikoekin loturiko alderdiak	29
4.2- Administrazioaren eta eskolaren berrantolaketa	30
4.3- Eskarira bideraturiko hezkuntza-sistema	31
4.4- Hezkuntza Sistema Publikoa birstortu.....	31
4.5- Hezkuntza-sareen antolaketa eta finantziazioa.....	31
4.6- Giza baliabideak eta aurrekontuak optimizatu	33
5.- ONDORIOAK	35
5.1- (ZER) Euskal Herri barrura eta kanpora irekitako Euskal Hezkuntza Sistema	35
5.2- (NOLA) Hezkuntza-akordioa	37

AURKEZPENA

1995eko II. Batzar Nagusian EAJ-PNVren azken Hezkuntza Txostena onetsi zen. Txosten hori oraindik ere indarrean dago; hala ere, XXI. mendean sartu garenez, gaurkoturiko hausnarketa eta zehaztapena behar ditu. EAJ-PNVk hezkuntza-gaiari emandako garrantziaren ondorioz, aldi berean, “Hezkuntza XXI” deritzon Liburu Zuria prestatu eta hori laster agertuko da, Txostenaren ostean; bertan, hausnarketa sustatzen da XXI. mendeko Euzkadirako Hezkuntzarekiko interesa duten arlo akademikoetan, unibertsitarioetan eta sozialetan.

Lanbide Heziketa eta Unibertsitate arloek, euren berezitasuna eta garrantzi estrategikoa kontuan hartuta, Txostenean finkaturiko mugak gainditzen dituen ikerketa espezializatuagoa behar dute. Hori dela eta, Txostenarekin batera, gehienez jota sei hilabeteko epean (berori onesten denetik zenbatzen hasita, Lanbide Heziketari eta Unibertsitateari buruzko Monografia bana aurkeztuko dira, Batzar Nazionalak eztabaidatzeko eta, behar izanez gero, onesteko. Testu espezializatuetan, sakon azalduko dira EAJ-PNVk hezkuntza-maila hauetako irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan dituen hezkuntza-politikak, hiritarren prestakuntza hobetzeko, eta horiek berebiziko garrantzia izango dute Euskal Herriaren etorkizunerako.

Agiri honek beste errealitate batzuetatik etorritako edo geure esperientziarekin hobetutako hezkuntzari buruzko ideiak zirkulatzeko leihoa ireki nahi du. Euzkadiko hezkuntza-sistemaren funtsezko oinarriari eta erronkei buruzko adostasuna eta barne-adostasuna lortu ondoren, eztabaida eta bikaintasun-ereduak geure hezkuntza-, kultura- eta gizarte-ezaugarriekin hornituko dira, kontzeptu-mailako ereduetan eta hezkuntza-praktiketan adierazitako hobekuntza-ekarpenekin. Hezkuntza-sektoreari eta euskal gizarte osoari ere, gero horretan parte hartzeko gonbita egingo diegu. Konfiantza handia daukagu etorkizuneko Euzkadin hobeto bizitzeko eta bizikidetzara hobe ikasteko ezagupenak lortu nahi dituzten milaka hezitzaileek, irakasleek, ikasleek eta familiek ordezkaturiko kapitalean. Oraingo mendeko lehenengo hamarkadako hezkuntza-trantsizioa kontuan hartuta, hemeretzigarren mendeko antolaketa-sistemetatik eta ikasketa-proiektuetatik abiatuz, XX. mendeko irakasleekin XXI. mendeko ikasleen eta familien eskariari erantzun egokia eman behar diogu. Industrializazioaren, burdinaren eta plastikoaren arotik, titanioaren eta silizioaren arora. Euskal hezkuntzak mundu hobe eraikitze gaitasuna duten pertsona aktiboak hezi behar ditu.

Gizakiaren ezaugarriarik paradigmaticoena eta adierazgarriena, berorren lehenengo historia, neurri handi batean eskolako ikasketa-proiektuetan idazten da. Bere giza baliabideetatik birsorturiko herria gara eta geure aberasgarritasuna hezkuntza-integraletik, integraztailetik eta abangoardiakotik soilik azaleratu ahal da.

Txostenean euskal errealitate poliedrikoaren oinarritzko alderdiak aintzat hartzen dira; gainera, **XXI. mendeko lehenengo hamarkadetako Euzkadirako**

Hezkuntza Proiektua izango da. Jakina, Euzkadiko hezkuntza-sistemaren azterketak (lehengo eta oraingo sistema) eta aipatutako helburuak lortzeko proposatu diren neurriek aplikazioko edo gidaritzako formulak eskaintzen dituzte, hezkuntza-ekintza arlo guztietan hedatzeko (eskola, unibertsitatea, herria, probintzia, gobernu, Europa, ...). Halaber, IV. Batzar Nagusia onetsi ondoren, EAJ-PNVren beste jarduketa-agiri batzuen iturria izango da.

Oinarrizko baldintzat, hezkuntza-subiranotasuna eta, horrenbestez, oraingo egoeraren erantzukizun orokorra eta Euzkadiko hezkuntza-sistemaren etorkizuna hartzen dugu, EAEko errealitateari dagokionez, arlo juridikoan eta administratiboan oraindik eskumen guztiak eduki ez arren. Beraz, hezkuntza-bizitza osoan eragina duten era askotako gaiak aztertzen dira: antolaketa, baliabideak, sareak, erakunde-mailako gorengo erantzukizunak onartuz eta hezkuntzaren nahiz heziketaren arloan gero eta harmonikoagoa den Europari begira.

Nafarroako Foru Erkidegoko eta Iparraldeko hezkuntza-eremuak geure Hezkuntza Proiektuaren barruan sartzen dira; horrenbestez, zati garrantzitsua eta funtsezkoa dira Euskal Hezkuntza Sistemari, eta hori oraindik finkatuta egon ez arren, EAEn onartu eta ezagutu egiten da, funtsezko ezaugarri jakinak dituelako: sistema eleanitza, eta horren ardatz nagusia euskararen suspertzea da; malgua eta integratzailea; familien aukeran eta partaidetzan oinarritua; kontrastaturiko kalitatearen parametroei dagokienez, Europako sistemarik onenekin konparatzeko modukoa, eta kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko apustu handia egiten duena. Horrenbestez, agiri honetan hezkuntza-politika orokorrean eragina duten era askotako gai anitzak aztertzen dira; aldi berean, geure sistemaren barruko gabezia garrantzitsuak autokritikatzen onartzen ditugu, esate baterako, bertoko ikasketa-proiekturik ez egotea (Humanitateak, Euskal Historia eta Kultura,...), EAEko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Iparraldeko erakundearen eta hezkuntza-eragileen arteko harremani emandako bultzada urria, edo hezkuntza-industria garrantzitsuen sorrera. Kalitateko hezkuntzaren aldeko lehentasunezko apustu soziala duen Euzkadi bezalako herri baten alderdi politiko nagusia izan arren, oraingo legebiltzarraren amaierara 18 urte luzetan hezkuntza-politikaren kudeaketatik kanpo egonik iritsi gara, eta horrek hausnarketa eta autokritika eragin behar ditu.

Hori guztia kontuan hartuta, agiri honen oinarrizko helburua EAJ-PNVk XXI. mendea hasierako Euzkadirako hezkuntza-diskurtsoa formulatzea da.

EAJ-PNVk berebiziko garrantzia eman dio beti hezkuntzaren arloko politikari, ehun urtetik gorako historiako gorabehera guztiak gaindituz. Azken etapa honi dagokionez (1977ko apustu instituzionaletik honako azken 25 urteak), kasuan kasuko hauteskunde-programak ez ezik, EAJ-PNVk euskal gizarteari proposaturiko hezkuntza sistemaren ereduaren sistematizazioan eta aurkezpen publikoan izandako bi lorpen aipatuko ditugu: a) 1977ko martxoa. Iruñean egindako Batzar Nazionalaren Kultura eta Hezkuntza Txostena. b) 1990eko iraila. Gasteizen antolaturiko Hezkuntzaren Nazioarteko Jardunaldiak: EUSKAL ESKOLAREN DISEINUA. Azken urteotan, hezkuntza-errealitateak aldaketa sakonak izan ditu, eta horiek gainditu egin dituzte bere bilakaeran aurkitutako oztopo guztiak; hala eta guztiz ere, oraindik ere konpondu gabeko arazoak

daude, horiek behar bezala aztertu ez direlako edo gizarteak bilakaera jakina izan duelako.

Euzkadiko “Hezkuntza Akordio” berri baterantz.

Agiriak Hezkuntza Akordio berria planteatzen du, Euzkadiko gizarte anitzaren barruko aniztasuna lortzeko; horretarako gauzatu beharreko negoziatioak, aukera politiko desberdinak ez ezik, inplikaturiko sektoreetan, erakundeetan eta estamentu profesionaletan nahiz sozialetan ere eragina izango du. Horrek guztiak, Hezkuntza Txostenean eta horri lotutako Liburu Zurian oinarrituz, EAJ-PNVtik sortutako Hezkuntza Plan Estrategikoa osatzen du.

Sorreratik bertatik ere, lan honek erantzuna ematen dio EAJ-PNVk Euzkadi osoko euskal gizarterako proiektatzen duen Hezkuntza Proiektuari. Une honetarako *desideratum* deritzona jasotzen du; gainera, aurrekaririk hurbilenak eta ibilitako bidea balioztatzen ditu, hezkuntza-komunitatearena bezain garrantzitsua den azpisistema soziala aldatzeko zailtasunak ahaztu gabe, eta gainerako alderdiekiko eta hezkuntza-eragileekiko negoziatio politiko eta sozialerako oinarritzat. Gure gizartean Hezkuntza Akordioa ekar dezakeen berehalako prozesua gauzatu nahi du.

Geure gizartearen eta geure herriaren onarpen esplizitutik abiatzen gara, atzeritarrek egindako ekarpen gero eta handiagoak kontuan hartuta, eta horiei arreta berezia eskaintzen zaie. EAJ-PNVk gogoz bilatutako tradizioaren jarraitzailea izanik, hezkuntza-sistema elkarreragin sozialen bermatzailetzat hartzen du; era berean, denon arteko lanerako elkargunea izan behar da, eragileak oso anitzak eta dibertsifikatuak izan arren, gero eta eskakizun handiagokoa den eskaria baldintzarik gabe betetzen duten hezkuntza-aukera anitzak eskaintzeko, eskari hori, aldi berean, eskaintako kalitatearekin gero eta kirikoagoa eta zorrotzagoa ere badelako. Seguru dakigu “gizarte zibila”, geure hezkuntza-errealitatean lehendik dauden edo laster asmatuko diren ekimeneko eta partaidetzako zenbait mekanismoren bitartez, hezkuntzaren jasotzailea ez ezik, berorren protagonista, eragile, antolatzaile, ikuskatzaile eta hezitzaile nagusia era badela.

Geure Herria aurrendaria izan da hezkuntza-ekimen askotan: Oñatiko Unibertsitatea, Real Seminario Patriótico Bascongado deritzona eta Deustuko Unibertsitatea (irakaskuntzan diharduten ordena erlijioso batzuen sustraiari jarraipena emanez); Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea (1936) eta Bizkaiko auzune-eskola; ikastolak, orain dela sei hamarkada, eta lankidetzamugimenduaren oraingo gorakada, unibertsitate berria sortuta. Horrekin guztiarekin batera, erakundeek eta ikastetxe publikoek lan itzela egin dute, batez ere euskal autogobernua ezarri denetik.

1. ORAINGO HEZKUNTZA SISTEMA: AURREKARIAK ETA BALANTZEA

Iruñean 1977ko martxoko apustu instituzionalerako Kultura eta Hezkuntza Txostenaren aurkezpenaren hogeita bosgarren urteurrenean, EAJ-PNVk *“Hezkuntzako Balantzea eta Emaizak Euzkadin, 1977-2002 aldiari”* izeneko txostena argitaratu zuen. Hezkuntza Txosten honekin batera egindakoa izanik, balantze horren paragrafo batzuk laburbilduko ditugu.

1.1- 1977-2002ko balantzea

Euzkadiko Hezkuntza Sistema goitik behera aldatu da aldi honetan, baina modu oso desberdinean, Euskal Herriko hiru administrazio-eremuetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, EAJ-PNVko lehendakari baten gidaritzara iraukorreko gobernuekin, aldaketa eta egindako bidea oso garrantzitsuak izan dira. Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean beste egoera bat dago eta botere publikoak laguntza txikiagoa ematen dute Hezkuntza Normalizaziorako; horrenbestez, aurrerakuntza guztia hezkuntza-komunitatean bertan eta EAetik iritsitako elkartasun instituzionalean euskarritu da.

Instituzionalizazioaren, euskalduntzearen eta, zoritxarrez, ikasle-kopurua murriztearen eraginez, euskal gizartea eta hezkuntzako eragileak nahiz erakundeak harro egoteko moduko egokitzapena egin behar izan da. Geure hezkuntza-sistemak aldaketa handiak izan ditu denbora laburrean: a) irakasleek etengabeak eta ezezagunak izan diren erronkak gainditu ditu, profesionaltasun handiarekin; b) familiak aktiboak, ulerkorrak eta zorrotzat izan dira, aldaketak baldintza ahalik eta onenetan egiteko. Ikasleek ere erantzun ona eman diete planteaturiko gaurkotzei eta berrikuntzei.

Ikuspegi kronologikotik begiratuta, hiru etapa bereizten dira: .egituratze-fasean, 1977 eta 1992 bitartean, oraingo Euskal Hezkuntza Sistemaren lerro nagusiak marraztu ziren. 1977an aipatutako **“IKASTOLA NAZIONALA”** edo **“Hezkuntzaren herri-kudeaketa”** errealitatea da oraingo Euzkadin, horrek bertako hiru eremu politiko-administratiboetan ezarkuntza eta garapen desberdina eduki arren. **Instituzionalizazio-fasean** (bigarren fasea), 1992tik 2002ra bitartean, alderdi garrantzitsuenak ikastola publikoen sorrera, Eskola Itunaren aplikazioa eta Hezkuntza Berrikuntzaren ezarkuntza izan dira. **Berrikuntza-fasean** (hirugarren fasea), 2002. urtetik aurrera, Hezkuntza Sistemak, Hezkuntza Kalitateko Proiektuaren oinarritzko lerroak zehaztu behar ditu, Informazioaren Gizartearen (edo Ezagupenaren Gizartea, edo Ikaskuntzaren Gizartea, edo, zergatik ez, Hezkuntzaren Gizartea) berezko azpiegitura teknologikoa egokituz eta zabalduz. EAeko kudeaketa autonomikoaren barruko etapa honetan, aldaketa estruktural handiak egin ditugu, bai alderdi sozialetan eta bai hezkuntza-erantzunean. Ikuspegi panoramiko batek horren **funtsuzko elementuak** erakutsiko dizkigu.

- **Atzerakada demografikoari erantzutea.** Jaiotza-tasaren beherakadaren eraginak laurogeiko hamarkadaren erdialdean nabaritu ziren lehenengoz, eta horren ondorioak oso nabarmenak izan dira laurogeita hamarreko hamarkadan. 1976tik aurrera, lehenengo aldiko joera aldatzen hasi eta, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, egoera egonkortzen hasi zen: EAEko jaiotzen bilakaera dramatiko (1975eko 39.646 jaiotzetatik 1990eko 16.361 jaiotzetara (1975ean zenbatutakoen %40). Jaiotzen kopuruan izandako atzerakada bizkor eta jarraitu horrek eragin iraunkorra izan du Hezkuntza Sistemaren ordeztetasan. 1991tik aurrera, urteroko jaiotza-kopurua egonkortzeko aztarnak nabaritzen hasi ziren, eta horiek nabariagoak izan ziren laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean.

Azken bi hamarkadotan ikasle kopuru itzela galdu da eta horrek eragina izan du ikastetxeen egiturari, eta bategite eta itxiera asko egon dira. Halaber, eskola-kuotaren kudeaketan ere eragina izan du (bi sareen arteko orekaren mantentamendua), hau da, hezkuntza-sareen arteko osagarritasun-eszenatokitik lehiako eszenatokira igaro gara. Ikasleen galeraren ondorioak ez dira homogeenak izan sare eta lurralde guztietan, eta hezkuntza-maila guztietan ere ez dira modu sinkronikoan gertatu. Ondoriorik handienak EAEn gertatu dira, Euskal Hezkuntza Sistemak lurralde horretan duen garapen mailaren eraginez; gainera, laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarreko hamarkadaren zati hadi batean dramatismo handia izan du beherengo mailetan. Apurka-apurka, murriztapenak unibertsitate aurreko goi-mailetan izan du eragina, eta, gaur egun, unibertsitate-sisteman bertan ere nabaritzen hasi gara.

Jaiotza-tasaren beherakadak dagoeneko ondorio guztiak izan ditu Haur eta Lehen Hezkuntzan, baita DBHko Lehen Zikloan ere; horrenbestez, gehienez jota lau urte akademikotan, fenomeno demografiko horren eragina sistema osoan hedatuta egongo da. Ikasle-kopuru handi hori arintzeko, aginte publikoetatik zenbait formula eragin daitezke. Hezkuntza Sistemaren barruko gaitasunetik begiratuta, garrantzi handia eman zitzaizkien ratioei, hau da, ikasgela bakoitzeko ikasle- eta irakasle-kopurua hobetu zen. Erabilitako beste mekanismo bat irakaskuntza-eskaintza zabaltzea izan zen, beste ikasle mota bat erakartzeko edo baztertuago zeuden Hezkuntza Sistemako mailak indartzeko. Halako neurriak, berriz, hezkuntza-sare bakoitzaren egituraren eta baliabide erabilgarrien arabera jar daitezke martxan, eta hori estu lotuta dago irakasleen kontratu-motarekin.

- **Eskolatzearen hedapenari erantzutea,** hasi haur hezkuntzaren etapatik eta unibertsitateko mailetara arte; maila horietan, Euzkadin Europako beste gizarte aurreratuago batzuen tasak edo tasa hobeak ditugu. LOGSE ezartzeko prozesuak, derrigorrezko irakaskuntza 16 urtera arte luzatzean eta, aldi berean, Batxilergoko nahiz Lanbide Heziketako ikasketak aldatzean, eragin handia izan du irakaskuntza publikoaren eta kontzertatuaren arteko harremanetan. Berrikuntzarako, gainera, irakasleak prestatzeko eta trebatzeko mekanismo bereziak zein intentsiboak garatu behar izan dira.
- **Elebitasun integralari erantzutea, gizartean onartutako eta EAEn finkatutako hizkuntza-ereduen sistema hedatuta** eta zabaldua. Eredu elebidunen eskaintza sozialaren hedapena finkatu egin da EAEn. Berori arautzen duen lehenengo araua MEC deritzonaren 1979ko Dekretua da. Gero, EAEn Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko 10/82 Legea eta

honako honi buruzko beste arau batzuk onetsi ziren: hizkuntza-ereduen zehaztapena (A, B eta D), irakasleak euskalduntzeko IRALE programa eta horiei eskatzeko moduko hizkuntza-gaitasunaren zehaztapena. 1977an aipatutako “eskola elebiduna eta irakasleak trebatzeko premia” errealitatea dira gaur egun, epigrafe honetan eta hurrengoan frogatuko dugunez. Datuak argigarriak dira: 99-00 ikasturtean, 3 urteko ikasleek honako ehuneko hauetan aukeratzen zituzten A, B eta D ereduak: %12, %31 eta %58, hurrenez hurren, eta 9 urte lehenago (90-91 ikasturtea) zifrak %26, %36 eta %38 ziren. Joera hori aldaezina da. Hasierako eskari horren eraginez, EAeko matrikulazioan, 3-19 urte bitarteko etapan (00-01 ikasturtea), A, B eta D ereduaren ehunekoak honako hauek dira: %35, %22 eta %43, hurrenez hurren, eta 9 urte lehenago (90-91 ikasturtean) zifrak %61, %17 eta %22 ziren.

Nafarroako Foru Erkidegoan ez da gauza bera gertatzen: euskararen legeak ez du euskararen aldeko ekintza positiborik sustatzen eta, “lingua navarrorum” deritzonaren *statu quo* minorizatua mantentzen du, horrek hezkuntzaren arlora dakartzan ondorio negargarriekin. Izan ere, eremu “mistoan” eta “ez euskaldunear” eskolaturiko ikasleek mugatuta dituzte irakaskuntza elebiduna lortzeko eskubideak, gainerako ikasle nafarrei dagokienez, eta ingelesaren irakaskuntzaren eskaintza sarritan euskararen eskaintzari kontrajartzen zaio (zentzurik gabeko paradoxa).

Gogoratu egin behar dira Nafarroako Foru Erkidegoko gobernua Eremu Ez Euskalduneko ikastola alegalei ezarritako oztopo handiak (bertako eskariei erantzuna emateko D eredu eskaintzen duten ikastetxe bakarrak). Alegaltate-estatusa bidegabe mantentzeaz gain (azpiegituren arloko dirulaguntzarik gabe), guztiz murriztutako dirulaguntzen ordainketan atzerapen nabariak egoten dira.

Iparralden, ikasketak euskaraz egiteko eskubidea onartuta ez dagoenez, egoera askoz ere dramatikoagoa da: hezkuntza-praktikak ez die eskubide- eta aukera-berdintasunik eskaintzen Iparraldeko ikasleei eta familiei eta, gainera, bidegabeko bazterkeria sakontzen du, euskara eta horren garapena (hezkuntzaren bitartez) ostrazismora kondenatuz.

- **Irakasleen euskalduntzeari erantzutea.** Segururik, gutxien ezagutzen den fenomenoetariko bat da, harrigarriagoa lortutako emaitzei dagokienez, eta eztabaidagarriagoa, ostera, sortutako kostu politikoei, ekonomikoei eta pertsonalei dagokienez. Irakasleak Euskalduntzeko Prozesuaren helburua, praktikan, irakasle-kopuru ahalik eta handienari hizkuntza-gaitasuna ematea da, euskarazko irakaskuntzak eskaini ahal izateari dagokionez. Prozesu horren erritmoak eskariaren gorakadak markatu ditu, eta horrek, lehen bezala orain ere (benetan edo modu potentzialean), Euskal Hezkuntza Sistemako irakasle guztiengan dauka eragina, eta horren eragina eta zentralitatea, berriz, irakasleek eurek aipa dezakete.

EAEn euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten irakasleen gorakadaren aldetik, 76-77ko ikasturteko %5etik 00-01eko %70era igaro gara. Hala eta guztiz ere, hausnarketa sakona egin behar da IRALE programak proposaturiko euskalduntze-ereduaren mugei buruz. Egon ere, horretarako arrazoiak daude. Lehenengo eta behin, irakasleen batez besteko adina, 48 urte ingurukoa. Gainera, hizkuntza-gaitasunik lortu ez duten edo liberalizazio-prozesua hasi ez duten irakasleen zati handi bat 50 urtetik gorakoa da. Dirudienez, beharrezkoa da irakasleak euskalduntzeko prozesua beste modu batera bideratzea. Aztertu

beharreko bide bat, izan ere, Giza Baliabideen politika adimentsuarekin erlasionaturikoa da, hori beste neurri osagarri batzuekin konbinatuz.

Bestalde, euskarazko hizkuntza-gaitasuna lortzeko erritmoa eta bilakaera desberdina izan da, eskola sarearen arabera, eta Sare Publikoan bilakaera askoz ere azkarragoa egon da (2. hizkuntza-eskakizuna %66, eta kontzertatua %52, 99-00 ikasturtean; 1. hizkuntza eskakizuna %9 eta kontzertatua %6). Horrek lotura estua dauka ikastolen zati bat 93-94 ikasturtean publiko bihurtzearekin, Sare Publikora bideraturiko baliabide ekonomikoen lehentasunezko kantitatearekin eta eskariak sortutako eskakizun handiagoarekin. IRALE, apurka-apurka, eskaturiko hizkuntza-gaitasuna duten irakasleen heziketa eta gaitasun teknikoa hobetzera bideraturiko programa izan daiteke. Azken urteotan aurrerapausoak eman dira norabide horretan.

- **EAEko sareen arteko oreka finkatzea.** Irakaskuntza kontzertatuak geure Hezkuntza Sistemaren duen garrantzia ulertzeko, atzeranzko ibilbidea egin behar da, euskal hezkuntzaren eta gizartearen arteko erlazioa aztertzeko eta eragile sozial desberdinen estrategietan sakontzeko. Irakaskuntza kontzertatuaren ezarkuntza handiaren oinarrian bi faktore daude: batetik, ordena erlijiosoaren sustrai sozial historikoa; bestetik ikastolen mugimenduaren sorrera eta garapena, frankismoko hezkuntza ereduarekiko planteamendu alternatibotzat. Horrenbestez, irakaskuntza kontzertatuaren presentzia handi hori kontuan hartuta, berezitasun hori kontuan hartzen duen eremu juridiko bereziaren zehaztapena eta sare publikoaren nahiz kontzertatuaren arteko harremanak egituratzeko mekanismoen ezarkuntza, izan ere, hezkuntzaren kudeaketa autonomikoaren lehentasunezko bi arlo izan dira. EAEko arauzko garapen nagusiak honako hauek izan dira: Ikastolen Titularitate Ofiziala (1980); Ikastolekiko eta Ekimen Sozialeko Zentroekiko Hitzarmenen Araudia (1986); Hezkuntza Hitzarmenen Araudia (1987); Ikastolen eta Eskola Publikoaren Batasunerako 10/88 Legea (1988) eta ikastolak Sare Publikoan sartzeko 123/93 Dekretua.

Sare Publikoaren eta Sare Kontzertatuaren arteko harremanen kudeaketa politikoari dagokionez, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1993ko Legea ez ezik, funtsezko erreferentea Euzko Alderdi Jeltzaleak, Euzkadiko Alderdi Sozialistak eta Euzkadiko Ezkerrak 1992ko maiatzaren 15ean sinaturiko Eskola Itunerako Akordio Politikoa izan zen. Eskola Ituna funtsezko erreferentea da EAEko hezkuntza-politika kudeatzeko, eta bi hezkuntza sareen arteko orekarako tresna ere bada. 1993/94 ikasturtean ikastola batzuk Sare Publikoan sartzeak eta bi sareen arteko lehia-lotura gero eta handiagoak baldintzatu egin du prozesu publiko-kontzertatu hori. Horren bi adierazpen honako hauek dira: bi urteko haurrak ikasgela arruntetan modu masiboan eskolatzea (beste Hezkuntza Sistema batzuetan ezaguna ez den fenomeno), eta ikastetxeen eskaintza hobetzeko, zabaltzeko eta osatzeko beharrezana, batez ere zerbitzuei dagokienez (eskola-jantokiak, garraioa, eskolatik kanpoko jarduerak). Horrela, orain arte ikastetxeetan garrantzirik gabeak ziren alderdiek arreta berezia eskuratu eta zabaldu egin dute hezkuntza-jardueraren eremua, orain arte ikasgela-barruko lanera mugaturiko zegoena.

- **EAEko autogobernuaren azken etapan bizi izandako aldaketa-ahaleginetik ikastea.** Hezkuntza-komunitateak onartu egin ditu elkarren atzeko hezkuntza-berrikuntzen ondoriozko aldaketak. Hezkuntza-eragile guztiei eskerrak eman

behar zaizkie egindako esfortzuarengatik eta gehienek prozesu arazotsu honetan erakutsitako jarrera positiboengatik. EAJ-PNVren iritziz, gizarteak onartu eta baloratu egingo du garatutako lana, hain zuzen ere, ikasleen hezkuntza-beharrizan berriei erantzun egokia emateko egin den esfortzua. Halaber, hezkuntza-ekintza biztanleriaren barruko sektore utzietara zabaldu, kalitate handiagoko kotak lortu eta gizartearen barruko estamentu oso desberdinetatik planteaturiko eskariei erantzuna eman nahi die.

Hezkuntza-sistemek eduki beharreko egonkortasuna ez zaie kontrajartzen egin beharreko hobekuntzei, batez ere, txosten honetan aztertutako gaiekin lotuta dauden neurri zehatzen aplikazioari dagokionez. Azken hogeita bost urteotan, Euzkadiko hezkuntza-errealitateak aldaketa asko izan ditu eta horren bilakaeran oztopo handiak gainditu dira; baina oraindik ere konpondu gabeko gaiak daude, horiek behar bezala ez aztertzearen eta gizarteak izandako bilakaeraren eraginez. Horiexek dira Hezkuntza Txosten honen barruko gaiak.

1.2- Oraingo egoera

Gaur egun, 2001-2005 Legegintzaldiaren erdian gaudelarik, Euskal Hezkuntza Sistemaren konparazio-egoera, bai EAEn eta bai Nafarroako Foru Erkidegoan, lehenengo postuan dago, Estatuko gainerako sistemei dagokionez. Konparazio-ikerketak guztiek (iturriak edozein izan arren) eta hezkuntza-sistema baten kalitatea ebaluatzen duten parametro guztiek berretsi egiten dute hori. Europako hezkuntza-sistemei dagokionez, azterketa eta elkartzea askoz ere zailagoa da, eskola-antolaketa desberdina edukitzearen ondorioz (Europar oraindik oso desberdina). Hala eta guztiz ere, ekimen sozialak hezkuntzan duen partaidetza bezalako parametro batzuek abangoardiako posizioan jartzen gaituzte. Estatu-mailan arautu diren beste alderdi batzuk (esate baterako, ikasketa-proiektuen gaurkotzea,...) ez dira hain onak.

Hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua ateratzean dagoen eskola-porrotari buruzko datua hobetzeko modukoa da, eta, geure oraingo ehunekoa (518-19) Estatuko batez bestekoa (%28,6) baino txikiagoa izan arren, oraindik oso urrun dago Europa erdialdeko eta iparraldeko sistemetatik (Alemania %7, Danimarka %11, Suedia %13,...).

Eskola-sareen arteko osagarritasunaren aldeko aukera etengabea izan da EAJ-PNVren hezkuntza-posizioan, beste alderdi politiko batzuek subsidiarioritasuneko ereduaren aldeko apustua egin duten bitartean, eta horien hezkuntza-politika, horrenbestez, mugatua da. Gure iritzian, Euzkadin "titularitate desberdinetako sareen arteko iragazkortasun nahiko handia" aktibo garrantzitsua da, baina nekez kuantifikatzeko moduko joera soziala da, ikasleak sareen artean mugitzeari dagokionez (familiek egindako aukeraren arabera). Horrenbestez, baterako programazioan eta planifikazioan sinesten dugu, baita zerbitzuaren eta eskaintzaren osagarritasunean eta, azken batean, ikastetxeen arteko lehi zintzoan baina ordenatuan ere, horiek edozein titularitatekoak izan arren, hezkuntza-kalitatea lortu ahal izateko, finantziario garrantzitsuena publikoa baita.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikastetxea, ikastola edo eskola aukeratzeko eskubidea bermatu behar die haur eta gazte guztiei (elbarri fisikoak, sentsorialak, psikikoak); horretarako, beharrezko neurri guztiak hartu behar ditu haur elbarriaren garapen integralerako, eta ikastetxeak eskola barruko edo bertatik kanpoko jarduerak garatuko dituela ere bermatu behar da.

Geure Hezkuntza Proiektuaren ezaugarri nagusienetariko bat ekimen sozialen partaidetza-maila handia da, esate baterako, ikastolak, kooperatibak, FEReko zentroak edo Diozesiarrak,...; horiek kalitatearen erreferentea eta eskari sozialari emandako erantzunik onena izan dira, eta eskari hori ekimen publikoak osatu du, azken hamarkada hauetan, beharrezkoa izan den guztian, eta bertan ere familien eta gizartearen partaidetzak gora egin du. Geure ustez kalitatea eta identitatea identifikatzen dituen ezaugarria den partaidetza-maila hori, ikastetxe guztietako familia- eta gizarte-partaidetzarekin batera, zaindu eta aipatu egin behar da, gizarteak hezkuntzaren barruko gaietan duen inplikazioa bikain neurtzen duen tresna delako.

Azkenik, Euskal Hezkuntza Sistema Euskal Gizartearen testuinguru geografikoaren, demografikoaren eta ekonomikoaren arabera da. Euzkadiko posizio geoestrategikoa, Europar Batasunaren barruan, Frantziako eta Espainiako estatuen artean, eta ozeanoaren bitartez Amerika Latinoko nazioekin eta ingelesez mintzatzen diren nazioekin lotuta, pribilegiozko posizioa da. Demografia suspertzen ari da, diasporaren barruko komunitateak mundu osoan banatuta daude eta euskal nazioa izatearen sentimendua eratzen ari da, eta horrek guztiak aukera handia ematen du hezkuntzaren eta komunikazioaren aro honetan. Euzkadik bere Hezkuntzaren alde egindako apustu ekonomikoa eta erakundeek nahiz familiek horretarako beti emandako laguntza ere berme handiak dira, XXI. mende honetan Hezkuntzaren aldeko apustu handia egiteko, geure iraganean eta orainean oinarrituz.

2. EUSKADIKO HEZKUNTZA POLITIKAREN FUNTSEZKO FAKTOREAK

2.1- Gizartea eta Hezkuntza

- **Gizartera irekitako eskola, etengabe entzuteko eta eskari sozial aldakorrei zerbitzu egokia emateko.** Hezkuntza-politikaren eragileek eta kudeatzaileek, jakina, gizartearen eskariei erantzun behar diete. Hezkuntza gizartearen zerbitzuan dago, eta hori etengabe gertatzen diren hezkuntza-egintza ugari guztietan adierazi behar da. Horrenbestez, hezkuntza familien, hezitzaileen, heziketa- nahiz kultura-erakundeen eta geure Herri osoaren esku dagoen funtsezko lana da. Hezkuntzaren kontrola eta jarraipena, beraz, gizarteak berak egin behar du.
- **Hezkuntzaren eginkizuna, Euzkadiren etorkizuneko funtsezko faktore sozial nagusizat.** Hezkuntzaren garrantziaz behar bezala jabetuta, berorren eginkizun guzti-guztiak lortzeko aukera izango dugu. Hezkuntza, zalantzarik gabe, gizakiak bere berezko eboluzioa bizkortzeko moduaren erakusgarririk onena da.
- **Aurreratua eta abangoardiakoa den gizarterako hezkuntza-sistema aurrendaria.** Hezkuntzak etorkizunean lortzeko moduko helburuak eta erronkak jakinarazi behar dizkie hiritarrik gazteenen belaunaldiei. Euzkadi Europako gizartea da, aurreratua eta abangoardiakoa, eta arazoei eta zailtasunei aurre egiteko gaitasun handia dauka. Aurrerakuntzaren bidean, guztion artean eraikitze moduko puntako eta bikaintasuneko Hezkuntzaren aldeko erabateko apustua egin behar da.
- **Mende berrirako eskola berria Hezkuntzaren Gizartean.** Gizarte garaikidea, azken batean, "Hezkuntzaren Gizartea" eta jakituriaren nahiz jakintzaren gizartea da. Etorkizuneko zalantzek edo, hobeto esateko, horren aukerak, eskola barruan ez ezik, Euzkadiko gizarte osoan ere eragina dute. Geure herriak arazoak gainditu behar ditu egunero, eta hezkuntzari lotutakoak erabakigarriak dira, hezkuntzaren eginkizuna Euzkadiko haur eta gazte guztiak prestatzea baita, eta hiritar guztiak prestatzea ere bai; horretarako eskaintza iraunkorra egin behar du, eskaintza profesionala eta garapen pertsonalari lotutakoa. Apurka-apurkako aldaketako erakunde-jarduketarekin jarraitu nahi dugu, erabateko gaitasun legegilea eta betearazlea duen hezkuntza-akordioaren aldeko eta Europarekiko konbergentziaren aldeko apustua eginez, hezkuntzaren arloan, errealitate kontinental hori osatzen duten herrien berezitasuna aintzat hartuta. Jarrera berritzaile horrek, apurtzeen aldekoa ez den jarrera horrek (EAJ-PNV bera apurtzeen aldekoa ez baita, eta hezkuntza-arrazoiak ere kontuan hartuta), hezkuntzaren barruko ikerketaren eta esperimendazioaren bitartez kontrastaturiko trantsizio eraginkorren aldeko apustua egiten du, berori baita hezkuntza-berrikuntza garatzeko eragilea. Haurrek eta gazteek eskola-egituraren berebiziko plangintza behar dute, eta bertan, egokitzapena etengabekoa izan behar da.
- **Euzkadiko Hezkuntza Proiektua hobetzea (zerbitzu publikoa, integratua eta anitza; eraginkorra, euskalduna eta eleanitza; berritzailea eta sortzailea), Euzkadiren etorkizuna eraikitze.** Euskal Hezkuntzak aldi luzea bizi izan du, eta, horren balantzea positiboa izan denez, EAJ-PNVk horri

buruzko agiri ofiziala atera zuen. Aditzera eman nahi dugu Hezkuntza Txosten hau ez dela aurreko etapetan izandako atzerapenen ondoriozkoa (onarpen orokor positiboa), hezkuntza-mailako antolaketarako gorengo eredia lortzeko beharizanaren ondoriozkoa baizik, gure ustez Euzkadik halako eredu bat hartzeko gaitasuna baitu, orain arteko fase guztiei esker. Horrenbestez, zerbitzu publikorako sistema batetik abiatzen gara, eta horrek titularitate publikoa edo kontzertatua duen eskaintza egiten du; ondo integraturiko zerbitzua da, guztiz anitza, eraginkortasun handikoa, gero eta euskaldunagoa eta eleanitza, eta gainera, berrikuntzarekin eta sormenarekin lotutako ibilbidea egiaztaturik dauka.

Hezkuntza-sistema batek ekintza koordinatua eta hierarkizatua behar du, bai hezkuntza-administrazioari berari eta bai beste administrazio eta eragile batzuei dagokienez. Hezkuntza-sistema giza baliabideen eta baliabide materialen egitura konplexua da, eta antolaketa hierarkizatua dauka. Eragile bakoitzaren jarduketak ondo ezagutu behar du multzo osoaren izaera organikoa eta sistemikoa. Hezkuntza-gaiaren azterketa segmentatuak, arlo edo tarte bakoitzerako proposamen isolatuekin, hobekuntza orokorrerako soluzio pobrea eskainiko luke. Sistemaren sare-formako idiosinkrasia eta eskola barruko loturak eragile guztiek hartu beharko dituzte aintzat, ikasle bakoitzari eta irakasle-ikasle erlazio bakoitzari ikaskuntza-testuinguru bikaina eskaintzeko.

Halaber, gero eta ageriagoa eta sentituagoa da, hezkuntza-komunitateari dagokionez, “eskolaren bakardadea”, eta horrek koordinazio handia behar du, gizartearen, hezkuntzaren, laguntzaren eta osasunaren arloan. Hezkuntza-sistemak, baliabide masiboak eduki arren, berez ezin ditu konpondu eskolako ikaskuntza oztopatzeke moduko arazo guztiak.

Funtsezkoa da hezkuntza-ekintza eragile askoren partaidetza duen sistematzat hartzea, bertako partaide bakarra ez baita hezkuntza-administrazioa. Ezinbestekoa da eskola-komunitatearen eginkizunak zehaztea; gainera, toki-edo lurralde-mailan hezkuntzaren, heziketaren eta laguntzaren arloan gertatzen diren gero eta kantitate edo kalitate handiagoko jarduketak ere zehaztu beharra dago.

Beste alde batetik, hezkuntza- eta osasun-sistemak (biak gobernuarenak) gainjarri egiten dira zenbait arlotan, hasi txertaketako edo eskola-osasuneko kanpainenetik eta gaixorik dauden ikasleen tratamenduraino (horiek ospitalean egon ala ez), hezkuntzako edota osasuneko terapietatik (gaixotasun psikiatrikoen tipologia batzuetan) edo haurrek edo gazteek jasandako tratatu txarrak detektatzeko programetatik igarota.

Hezkuntza-sistemak, halaber, enpresekin, sindikatuekin edo erakundeekin dituen lankidetzak-eremuak hobetu eta zabaldu behar ditu, beste gobernu-eremu batzuekin dituenak ere barne. Lankidetzak hori lehendik ere oso eraginkorra da, eta azken hamarkadotan indartu egin da, bai Lanbide Heziketan eta bai Unibertsitatean. Horri arreta berezia, hedatua eta sistematikoa jarriko zaio, baita derrigorrezko hezkuntzako eskola-etapetan ere.

Komunikabide idatziek eta ikus-entzunezkoek (telematikoak ere barne) hezkuntzan duten eragin gero eta handiagoa aintzat hartuta, hezkuntza-

sektorearen eta baliabide horien enpresa editoreen arteko lankidetzak-formulak ezarri behar dira. Hain zuzen ere, Euskal Irrati Telebista bezalako komunikazio-talde publikoekin hitzarmenak sinatuko dira, hezkuntza-errealitatea ikus-entzunezko eskaintzaren bitartez ezagutarazteko, euren edukien hezkuntza-egokitasuna bilatzen laguntzeko (bertako nahiz kanpoko produkzioari dagokionez) eta ikastetxe zein unibertsitate barruko komunikazio-baliabideei laguntza teknikoa eta profesionala emateko.

- **Hezkuntza, BIZITZARAKO eta ENPLEGURAKO tranpolin nagusia.** “Hezkuntza Integrala” sustatu nahi dugu, Jacques Delorsen presidentziapeko “*Nazioarteko Batzordeak UNESCOri XXI. Menderako Hezkuntzari buruz emandako Txostena*” deritzonaren barruko lau helburuak geureganatuta, eta horrek esandako hitzak honako hauek dira eta guk onartu egiten ditugu: *Ezagutzen ikasi, Egiten ikasi, Elkarrekin bizitzen ikasi eta Izaten ikasi*, eta ezagupenak lortzeari beharrezko lehenetasuna eman beharko zaio, beste ikaskuntza mota batzuk baztertu gabe. Azken 25 urteotan, euskal gizarteak aldaketa sozial, ekonomiko eta industrial handia izan du. Mende honetan, industrializazioaren osteko gizarte berria murgilduta, lehenengo “industria” heziketa da eta baliabide-iturri iraunkor bakarrak pertsonak dira.

Era berean, euskal hezkuntzak itxuraldaketaren lehenengo etapa bete eta hori hurrengo kapituluan aztertuko dugu. Orain, osagarria den “Bigarren Mutazioa” hasi behar du. Gure iritzian, gizarteko kide guztien heziketa “inbertsio sozialik” onena da (inbertsio nagusia). Edozein gizarteko behin betiko kapital iraunkor bakarra gizakia da, eta horren hobekuntzak ordeztu ezinako suspertze-gaitasuna eragiten du.

Hezkuntza, bestalde, Giza Garapenaren Taulan dugun kokaleku ona mantentzeko eta gainditzeko euskarria izango da, bai hiritarren prestakuntzan eta heziketan eragin zuzena duelako, bai enpleguan, errentan, lehiakortasunean eta abarrean ere zeharkako eragina duelako. Gizarte garaikideak profil balioanizdun gero eta gehiago behar du, ez bakarrik sortzen ari diren lanpostu berrien eskumenak garatzeko, baita bizitza gero eta konplexuagoan bizikidetzak garatzeko eta parte hartzeko ere (familia, lanbidea, harreman pertsonalak eta taldekoak). Komunitate bateko heziketa- eta kultura-maila zabaltzea, handitzea eta orokortzea estu lotuta dago bizitza-kalitatearekin eta gizarte-ongizatearekin. Horrenbestez, gero eta kota altuagoak jarri behar dira hiritarren hasierako eta etengabeko heziketan eta oinarritzko gaitasun kulturalen. Hiritar guztien oinarritzko heziketa nabarmentzeko eta horri balio handiagoa emateko asmoa daukagu, gaitasun pertsonalak guztiz garatzeko eta enplegurako heziketan aukera ahalik eta handienak edukitzeko.

Hezkuntza, izatez ere, baztertuenak berreskuratzeko baliabiderik egokiena da, horiek batzuetan era guztietako arazoak izaten baitituzte ikaskuntzan integratzeko. Diskriminazio positiboaren aldeko defentsa sutsua egingo dugu, benetako “aukera-berdintasuna” lortzeko.

Hezkuntzaren arloan egindako ikerketa askok agerian jarri dutenez, kalifikaziorik altuena lortzen duten ikasleak goi-mailako edo, behintzat, bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten familien barrukoak dira. Irakasleek “familia-motxila” esaten dutena da hori, hau da, familiaren kapital kulturala, eta hori erabakigarria da ikasleen mailan; izan ere, ikastetxearen titularitate pribatua edo publikoa bigarren mailan gelditzen da. Euzkadin ere gizarte-banaketa dago, eta

ondasun kulturalen eta materialen kontsumoan partaidetza desorekatua daukagu. “Pobreziaren kultura” dago. EAJ-PNVk seguru daki hezkuntza-politiken arrakasta, lehenengo eta behin, ikasleen jatorriaren arabera desorekak murriztearen arabera egiaztatu behar dela. Hau da, geure haurren eta gazteen bizi-baldintza zailak ahalik eta lehenen gainditu eta zuzendu behar dira, horiei gizartean gora egiteko aukera eskaintzeko, horixe baita eskola-sistemaren eta bertako sustatzaileen handitasuna neurtzeko modua, betiere oinarrizko laguntza-zerbitzuekiko lankidetzan.

Gure ustez, proiektaturiko hezkuntza-kudeaketaren lehentasuneko bat “Gizarte Bazterkeriaren aurkako Eskola Programa” abiatzea da, Gizarte Bermeko neurriak hezkuntza-eremutik bertatik sustatzeko.

Lehen eta Bigarren Mailako Ikastetxe Publikoetan eta Kontzertatuetan, eskolatik kanpoko ordutegiko eta egutegiko jarduketak finkatuko dira, familiarekin, gizartearekin, kulturarekin edo hizkuntzarekin lotutako eskola-atzerapena duten ikasleentzat. Horretarako zuzkidura berezia egongo da, giza baliabideetan eta aurrekontu-horniduran, eta hori kasuan kasuko ikastetxeko hezkuntza-ekintza arruntarekiko osagarria izango da. Udal batzuek ezarritako ereduak erreferentziazat erabil daitezke, baina inplikazio eta ardura nagusia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena izango da, udal- eta foru-administrazioekiko eta beste erakunde sozial batzuekiko lankidetzan.

Hezkuntzak funtzio asko ditu, baina berorren eginkizun nagusia hezkuntzarik ez dutenei aukerak eskaintzea da, belaunaldi gazteen arteko desorekak orekatuz eta horien sustapena bultzatuz (gizartean, lanean, kulturean,...); horretarako, hezkuntzaren derrigorrezko etapa orokorreko elkargunea aprobetxatuko du. Horrenbestez, gizarteratzerik handiena sortzen duten hezkuntza-programak sustatuko dira, bai lehen aipatutako taldeetan (famiaren eta gizartearen eraginez baztertutako taldeak) eta bai askatasunik ez duten taldeetan.

- **Euzkadiko identitate kulturala, taldekoa eta partekatua.** Ibarretxe lehendakariaren *“Bizikidetzarako Itun berria”* deritzon proposamenean azaldutako aurrekarietatik, honako hau dioen paragrafoa jaso nahi dugu: *“Euskal Herria, historia osoan, ez da inoiz egituratu, eta ezin izango du inoiz egin, errealitate baztertzailatzat (edonork dauka Euskal Herrikoa izateko eskubidea, nahi izanez gero), errealitate sozial bizitzat baizik; errealitate hori Euskal Herrikoa izatearen identitate-sentimenduarekiko banakako eta borondatezko identifikazioaren ondoriozkoa da, eta gainera, sarritan, bateragarria da beste errealitate nazional edo estatal batzuetakoa izatearen sentimenduarekin. Euskal Herrikoa izatearen sentimendu horrek arau juridikoak eta muga politikoak gainditzen ditu. Izan ere, identitate nazionalen sentimenduak ezin dira derrigorrez ezarri, eta ezin daitezke dekretuen, legeen edo konstituzioen bitartez debekatu. Naturaltasun osoarekin onartu behar da pertsona bakoitzak nahi duen izate- eta identitate-sentimendua edukitzea, Giza Eskubideen Gutunean berriaz jasotzen denez”.*

Horrenbestez, elementu komunak dituen euskal identitatea egituratzeko dinamika segurtatu behar da; partekaturiko erreferente horrek eskola-komunitate osoa eta, beraz, gizarte osoa integratuko du, gizakiarengan eta horrek aukeratzeko gaitasunaren barruan berezkoak diren banakako eta taldeko aukera anitzen kalterik gabe. Banakako eta taldeko identitatea eraikitzeko, hezkuntza-eskaintzak ikastetxeen eta hezkuntza-proiektuen aniztasuna eskaini behar du, baita aukera berriak sortzeko bidea ere, familiek

hezkuntza-eredua askatasunez aukeratzeko egiten dituzten eskabideei erantzun egokia emateko, eta gizarte integratukoa eta solidariokoa izatearen osagai komunak bermatzeko.

Mundu modernoko hezkuntza-ekintzak leku- eta denbora-mugak gainditzen ditu, ez bakarrik ikasgelari dagokionez, baita eskolari berari dagokionez ere. Hezkuntza-ekintza ez da arauturiko heziketa-jarduketetan, eskolako araubide orokorrean eta ikastetxe barruan soilik gauzatzen (*sensu estricto* deritzon eskolatzea). Irakaskuntzak, gaur egun, forma berriak hartzen ditu ikasgelatik kanpo, eta kuantitatiboki nahiz kualitatiboki oso desberdinak diren irakasleen eta ikasleen arteko harremanak osatzen ditu; gainera, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia sartu direnetik, aukera berriak ugaritu egin dira. Ikaskuntzaren eremu eta antzoki berriak betiko ikasgeletatik (bitan banatuak ala ez, irakasleria bikoitzekoak ala ez, ...) eremu sozialeko talde oso txikietara edo etxe barrura joan daitezke, baita etxe guztiek eduki beharko luketen ikerketagelara edo ikerketa-txokora ere. Eskola berria, fisikoki, lurralde osora hedatzen da, eskola barruan eta bertatik kanpo, eta, denborari dagokionez, urteko egutegi eta ordutegi osoan gauzatzeko modukoa da.

“Jasangarri” hitzak adiera bikoitza dauka. Alde batetik, iraunkorra izan behar da denboran, eta bat etorriko da interes sozialekin eta ekologikoekin, giza baliabideen eta baliabide materialen erabilerari dagokionez. Beste alde batetik, partaidetza bultzatzen duen hezkuntza horrek ez du inor baztertuko, eta kontuan hartuko ditu pertsona bakoitzaren berezitasun guztiak.

Gure ustez, eskola gizartearen muinean bertan murgilduta egon behar da, hori hobetzeko eta suspertzeko. Eskola-porrota inondik inora ere onartzen ez duen hezkuntza izango da.

2.2- Euskal familiak eta ikasleak

Hezkuntza Sistema Gizarte Sistemak Hezkuntzarako eskubidea garatzeko duen tresna da, lehentasunezko hezkuntza-ekintza (familiarrena) osatzeko. Izan ere, familiek eta pertsonak eurek (ikasleak) hezkuntzarako eskubidea dute. “Familia-hezkuntza” gainerako hezkuntza-modalitateak baino lehenagokoa da. Gurasoek, tutoreek eta familiakoek seme-alaben hezkuntza bermatzeko eskubidea eta betebeharra dute. Hezkuntza familia barruko arloa da, ardura hori eskolaren esku utzi baino lehen.

Gurasoek seme-alabei hezkuntza bermatzeko betebeharra, eskubidea eta ardura dute. Hezitzaileak, izatez ere, prestakuntza garaikideak behar duen heziketa- eta hezkuntza-lana aldi luzean berenganatzen duten lankide profesionalak baino ez dira. Horrenbestez, gurasoei edo tutoreei seme-alaben hazkuntza-, heltze- eta aurrerakuntza-prozesua kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko aukera ematen dien baliabideak eta metodologiak hezkuntza-sistemaren barruko etapa guztietan sustatu beharko dira. Familiak erabakigarriak izango dira eurei dagozkien hezkuntza-arloetan. Printzipio hori (Hezkuntza eta Gizartea) haur-hezkuntzatik unibertsitatera arte mantenduko da. Familiak, oraingo eta geroko tipologia osoarekin, funtsezko hezkuntza baliabideak dira.

AMPA eta FAMPA desberdinen arteko koordinazioa sustatuko da, planifikazio ahalik eta orokorra lortzeko; gainera, eskola-komunitatean elkarte berrien sorrera erraztuko da, baldin eta horiek ikasleen gurasoen ordezkari nahiko badute, talde dibertsifikatu horren ordezkariaren mesedetan. Erakundeen laguntza, berriz, eguneroko kudeaketarako dirulaguntzaren hobekuntza nabariaren bitartez gauzatuko da; halaber, “inbertsio-fondo berezia” ere sortuko da, eta horrek beharrezko zuzkidura edukiko du, familien eta eskolaren arteko lankidetzaren eta komunikazio-proiektu berritzaileak ordaintzeko.

Irakaskuntza-familia deritzonaren arteko sinergia sustatu behar da ikastetxearen, auzunearen edo udalerraren inguruan, Euzkadi osora hedatuta; gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintako aukerak mundu osoko beste komunitate batzuekiko lankidetzaren estua eta egokia ahalbidetzen dute, batez ere Europako eta Amerikako euskal diasporari dagokionez. Familiatik familiarako harremanen bitartez, euskal hizkuntzan eta kulturaren interesa dutenei edo euskaldunei heziketa euskalduna eskuratzeko aukera ematen dien hezkuntza-mailako lotura berria sortuko da.

2.3- Ikasleak

Geure Hezkuntza Proiektuan hauxe diogu: “Hezkuntza-zerbitzuaren helburu nagusia ikaslea da” adin txikikoak direnean familien bidez ordezkaturik daude, eta euren iritzia adierazteko aukerak ere eskaintzen zaizkie; aukera horiek, gainera, iritzia adierazteko gaitasunarekiko modu proportzionalen handituko dira, aurreko epigrafean esan denez. Ikasleak hezkuntza-sistemaren protagonistak eta egileak dira, baita hezkuntzako eta eskolako esfortzu guztia justifikatzen duten jasotzaileak ere. XXI. mendeko hezkuntza ezin daiteke oinarritu XIX. mendetik hartutako hezkuntza-ereduan, horrek irakaskuntzari lehentasuna ematen baitzion, ikaskuntzari zegokionez. Hezkuntza garaikideak eskolen egitura eta irakaskuntzaren paradigma aldatu behar ditu; gainera, benetako lehentasuna emango dio ikasleen protagonismoari, eta hezkuntza-prozesu osoa hobeto ikastera bideratuko du, irakastea ikasleei aurkikuntza-transmisioa eta ulermena erraztea baita.

Ikasle iraunkorren kategoria berria sortuko da laster, eta ikasle-talde hori, berriz, bitzira osoan ikasten eta hazten jarraitu nahi dugun guztiok osatzen dugu. Hala eta guztiz ere, horrek ez du baztertu behar ikaslerik gazteenen garrantzia, gizarteratzearen eta lanbidea ikasteko lehenengo ikaskuntzaren prozesuan. Adin-bitarte hori, zerotik hemezortzi edo hogeita lau urte bitartekoa, funtsezkoa da, eta beti izango da, pertsonen eta gizartearen garapenean. Ikasleei emandako lehentasun hori, bestalde, eskola-bizitzaren barruko arlo guztietan egiaztatuko da, hasi eremu fisikoen nahiz zaintzen esleipenetik (ikasleei zuzendutako esleipenak) eta ikasleek merezi duten protagonismoaraino, eta protagonismo hori, berriz, eskola-erabakietan dituzten ordezkarien bitartez bermatuko da.

Aukera-berdintasuna bermatu behar da, pertsonaren funtsezko hezkuntza-eskubidea baita, eta erakunde demokratikoez hori bermatu behar dute; horrenbestez: a) ikasle guztiek edozein ikastetxetan ikasteko aukera edukiko dute (horren titularitatea publikoa edo kontzertatua izan), inolako diskriminaziorik gabe, eta ikastetxe guztiek kalitateko hezkuntza eskaintzeko behar diren baliabide guztiak izango dituzte; b) ikastetxe bateko ikasle guztiek beharreko orientazio jasoko dute, hazteko eta heltzeko aukera izan dezaten, euren gaitasunaren, jarreraren eta borondatearen arabera. Jakina, hezkuntzaren barruko aukera-berdintasunak ez dauka zerikusirik proposamenen berdintasunarekin edo emaitza berberak lortzeko asmoarekin (desorekak neutralizatzeko). Aldiz, aukera-berdintasunak ikasleei desberdinak izateko eskubidea bermatuko die, euren duintasuna segurtatuz, bakoitzak bere bokazioaren eta gaitasun pertsonalen arabera ikasketak egin ahal izateko.

Beken araudia berrikusi eta indartu egingo da, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntza-mailetako partekaturiko finantziarazko panoraman, eta hori baliabide materialei buruzko gaien barruko kapituluetan azalduko da. Ikasleei eta horiei hezkuntza-berme guztiak eskaini ezin dizkieten familiei emandako bekek hezkuntza-prozesuaren berezko eta eratorrizko gastu guztiak ordainduko dituzte. Derrigorrezkoaren osteko, lanbide heziketaren barruko eta unibertsitateko mailetan, egoera ekonomikoa egiaztatzeko baldintzak ez ezik, errendimendu akademikoa ere baloratuko da, eta ikasteko gaitasunik onenak erakusten dituztenek laguntza sozial guztia jasoko dute, harik eta aukeraturiko lanbide heziketaren eta unibertsitatearen barruko karrera amaitu arte.

Aukera-berdintasunean eta elkartasunean oinarrituriko hezkuntza-sistemaren baten gaitasun zailean eta itzelean sinesten dugu. Edozein ikaslek bere gaitasun guztiak ahalik eta gehien garatzeko aukera izan behar du: pobreek edo aberatsek, bertokoez edo kanpokoek, elbarri fisiko, psikiko edo sentorrialek (kapitulu honetako azken epigrafe berezian ikusiko dugunez), eta garapen pertsonalerako pizgarri edo baliabide guztiak eskaintzeko moduko familia dutenek eta ez dutenek.

“Ikasleen Eskubideak eta Betebeharrak” deritzen oraingo araudiak berrikusi eta gaurkotu egingo dira, “Familien Eskubideak eta Betebeharrak” deritzenei dagozkienak eta Irakasleen Kodigo Deontologiko deritzonaren barrukoak (hurrengo kapituluaren ikusiko den kodigoa) promulgatzearekiko koherentzian. Eskubideen atalean, hezkuntzarako, hezkuntza-prozesuan partaidetza aktiboa izateko, neurri batean euren gidaturiko proposamenetan nahiz programetan ekimen-gaitasuna edukitzeko eta boluntario-sistemarako eskubideak bermatuko dira; betebeharren tituluaren berriz, hezkuntza-komunitate osoarekiko jarrera nahiz jokabide etikoen mantentzea eta heziketa-prozesuaren barruko erantzukizuna nabarmenduko dira.

Euzkadira azken urteotan iritsitako familiarik eta ikaslerik gehienek (gehienetan, jatorrizko herrietako talderik ekintzaileenak eta aktiboak) egokitzapen-gaitasun oso handia erakutsi dute, eta horrek, euskal gizarteak harrerarako duen gaitasun handiarekin batera, integrazio bizkorra erraztu du. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan, atzerriko familiak hain onak ez diren baldintza ekonomikoak eta kulturalak dituzten auzuneetan biltzen dira, eta horietan, beste

familia pobreekin bizi dira; horren ondorioz, bertan bizi diren ikasleek “eskola-porroterako” arrisku handia dute. Horrenbestez, neurriak eta soluzioak orokorrak izango dira eta, aldi berean, talde eta ikasle bakoitzaren zailtasun bereziak konpentsatu beharko dituzte. Era berean, eskolako aprobetxamendua eta aurrerakuntza lortzeko, hezkuntza-jarduketek familia-beharrizanen arlo guztietara iritsi behar dira, osasun-zerbitzuek eta Gizarte Laguntzako zerbitzuek eskainitakoetatik hasita, erakundeek eskainitako zaintzara iritsi arte, baldin eta haurrak bakarrik badaude, bai harrera-familietan edo bai egoitzetan.

Gure ustez, nahiko berria den fenomeno hori behar bezala mantentzen da, edukitze-muga batzuen barruan. Geure iritzian, gaur egun, eta hezkuntza-sistemak emandako erantzuna ikusi ondoren, ez dago inolako alarma sozialik justifikatzeko moduko arrazoirik. Egoera hori izan duten ikastetxeetan, eskola-egitura halako ikasleen eskakizunetara egokitu da. Gainera, unibertsitateetan eta irakaskuntza-eremuaren barruan, elkarreaginean diharduten eta kultura desberdinen arteko elkar ulertzea kohesionatzen duten profesionalak sortu behar dira.

Gizarteratzea eta eskolatzea, izan ere, familiak gizartean baztertuta daudenean izaten da prozesu arazotsua nahiz luzea, eta hezkuntza-tratamendua frogaturiko tesi horrexetan oinarritu behar da. Atzerriko ikasleek, gizarte- eta kultura-maila altukoek edo ertainekoek, hasieran hizkuntzarekin lotutako zailtasunak aurkituko dituzte, batez ere Bigarren Hezkuntzaren barruko ikasleak direnean. Hala eta guztiz ere, eskola-egokitzapena nahiko azkarra eta ondoriorik gabea izaten da, hilabete edo urte gutxiren buruan, batik bat, atzeritar gutxi ikastetxeetan eta inguruetan sartzen badira, horrek integrazio azkarra eragiten baitu. Horrenbestez, gainerako kasuetan arreta handiko gune bat biltzen da: atzerriko ikasleak, baliabide sozioekonomiko gutxiak, Europako parametroetatik kulturalki urrun daudenak, eta bazterkeria-arrisku handia dutenak; gehienetan, gutxiengo etnikoen eta sozialen presentzia handiagoko auzuneetan bizi dira. Hori guztia kontuan hartuta, atzerriko ikasleak orokorrean aztertu ditugu (oraintsu iritsitako gutxiengoaren barrukoak, familia-baliabide urrikoak eta integrazio fasekoak), gizartean bazterturiko familietako eta gutxiengo etnikoetako familietako ikasleekin batera.

Hezkuntzako Txosten honek defendaturiko praxi pedagogikoaren arabera, ez da komeni atzerriko ikasleak edo gutxiengo etnikoetakoak ghettoetan sartzea, ahal den neurrian behintzat, eta ikasleok ez dira auzuneetatik edo bizilekuetatik urrundu behar, horrek nekez gainditzeko moduko dimentsioa sortzen baitu arazo honetan. Ikastetxe batzuk benetako “inmigrazio-poltsatza” egituratu dira, eta ikastetxeok halako ikasleen kopurua mugatu eta ikaskideen arteko benetako integrazioa sustatu beharko dute. Ikastetxe batzuetako pilaketa-ehuneko handiak murrizteko, salbuespenezko neurriak hartuko dira, eta garraio-neurriak ere har daitezke, apurka-apurkako integrazio modularreko eredia lortzeko, atzerriko edo gutxiengoetako ikasleen %20-30etik beherako dentsitateekin (ahal izanez gero, ikastetxe publiko eta kontzertaturik gehienetan).

2.4- Hezkuntza-eragileak. Irakasleak. Irakasleak ez diren langileak

Irakasleak

Gure ustez, heziketa-lanbidea, batez ere, funtzio soziala da eta horren helburua gorengo mailako erantzukizuna duen beharizan komunitarioari arreta egokia eskaintzea da. Hezkuntza-eskala guztietako irakasleak lehenengo mailako protagonista sozialak dira eta geure gizartearen etorkizuna eurek egindako lanaren arabera izango da.

Hezitzaileek hezkuntza-sistemaren muina osatzen dute. Geure iritzian, barruko eztabaida eta eztabaida soziala eragiteko eredu proposatzen duen edozein proposamen, adibidez, “Hezkuntza XXI” deritzon Liburu Zuria, irakasleei buruzko oinarrizko irizpideen azalpen esplizituan oinarritu behar da, Euzkadiko hezkuntza-eremua berritzeko prozesu garrantzitsu hori behin betiko idazteko orduan. Hezkuntzako Txosten honetan, Euskal Hezkuntza Sistemaren birmoldaketa eskatzen da, eta horretarako, Giza Baliabideen Sustapena (bai ikasleak eta euren familiak, bai hezkuntzako profesional guztiak) kontuan hartzen duen eta horretan euskarritzen den politika garatu beharko da.

Hezkuntza-errealitatearen etengabeko berrikuntza, gizartearen mutazioak hurbiletik jarraitzen dituen berrikuntza, errealitatea izan daiteke, irakasleen bultzada egokiarekin. Hezkuntza-sistema demokratikoa, integratzailea eta integratua bermatzeko, ondoren adierazitako printzipioak edo helburuak aipatu behar dira, horiek irakasleak eta hezkuntzaren barruko beste eragile batzuk aldatzeko elementu egokiak baitira.

- **Irakasleen protagonismo sozialaren defentsa aktiboa;** izan ere, protagonismo hori murriztu egin da hezkuntzaren arloan, bertako profesionalak eurak izan eta bertan garatzen baitute euren karrera; hala ere, bigarren mailako lanak eman zaizkie, batzuetan lan pedagogikoaren alboko lanak, gainera. Gure ustez, Euzkadirako funtsezko kapital sozialak dira irakasleen lanaren defentsa instituzionala eta onarpen publikoa. Irakasleek, lanbidetzat eta taldez, irudi nahasgarria izan dute eta horrek narriatu egin du maila oso handian geure gizartea aldatzeko erantzukizuna duten lan horretan dihardutenen garrantzia eta sinesgarritasuna.
- **Katedra Askatasunaren defentsa sutua.** XVII. mendean, elizaren, politikoen, ekonomiaren eta militarren agintearen mendeetako dogmatismoaren menpeko hezkuntza-komunitateak “katedra-askatasuna” aldarrikatu zuen, baita ideia guztien “azterketa askerako” eskubidea ere, jakintzaren bilaketa zientifikoa zaintzeko. Lorpen horietarako mendeak behar izan dira, eta aginte publikoek gogor defendatu eta zaindu behar dituzte. Pentsamenduko independentzia hori, berriz, hezitzaileek berriro aurkitu behar dute, eta horiek emantzipatzen ikasi beharko dute, baita modu kritikoan pentsatzen eta arazoak autonomia handiagoarekin konpontzen ere, besteak beste, gizarte moderno honetan izaki integralak diren neurrian. Hezitzaileen Katedra Askatasunak honako hau egiteko aukera eskaintzen dio hezkuntza-komunitate osoari: gauzak sormena erabiliz berriro pentsatzeko, jakintzarako nahiz gizarterako aukera berrien bilaketan parte hartzeko (ikasleek euren nortasuna indartzeko aukera izan dezaten) eta gizarte demokratikoaren barruan hiritartzat hezteko.

- **Irakasleen hizkuntza-eskumenetako aurrerakuntzak.** Baldintza: hezkuntza sistemak hezkuntza eleanitzaren eskari osoari erantzun egokia eman behar dio (euskara, espainola/frantsesa, ingelesa). Gainera, sustatu egin behar du euskararen eskari soziala. Irakasle euskaldunak lortzeko helburua hortik ondorioztatzen da, eta irakasleok, gainera, hirugarren hizkuntza batean ere gaitasun handia izan beharko dute (batez ere, ingelesean). Horrenbestez, irakaslearen euskalduntzea ezinbestekoa da, goian aipaturiko helburua bete ahal izateko.
- **Geure irakasleen eleaniztasuna indartu eta berezko kulturizazioa nahiz kulturizazio unibertsala ere indartu.** Euzkadiko irakasle guztien prestakuntza modu aktiboan sustatuko da, bai hizkuntza ofizialei (euskara, espainola edo frantsesa) eta bai ingelesari edo Europako beste hizkuntza ofizial batzuei dagokienez, eta premiazkoena alemana izango da, European mintzatzen den hizkuntza nagusia, horrek geure hezkuntza sisteman duen presentzia urria kontuan hartuta.

Euskalduntzearen gaitasun berriak beste dimentsio bat hartu behar du; horrela, hizkuntza eskuratzeko fasea amaitu ondoren, horren kalitate didaktikoa modu iraunkorrean sustatu eta, gainera, fase berrian sartu behar da, kualitatiboki garrantzitsuagoa den fasean; bertan, irakasleek inguruko euskara ikasi eta horretan sakondu beharko dute, hau da, familia euskaldunetako ikasleek edo geure hizkuntzaren erabilera orokorreko eremuetan bizi diren ikasleek erabiltzen duten euskalkia ikasiko dute.

Euskalduntzea, geure kultura aurkitzea (sarritan minorizatua, baina ezkutua) eta atzerriko beste hizkuntza batzuk nahiz horiei lotutako kulturak ikastea aukera oso ona eta, agian, bakarra da, ikasleen etapa oso garrantzitsua bizitzeko; horrela, irakasle hobeak eta kide hobeak izaten ikasiko dugu, baita kultura handiagoko pertsonak izaten ere. Irakasleek hizkuntza ikasteko egin beharreko esfortzuarekin batera, kapitulu honetan zerrendatzen diren neurriak aplikatuko dira (trukeak, egonaldiak, foroak, elkarteak,...), lotutako kulturak hobeto ezagutzeko, geure euskal ondarean kultura handia hartzetik hasita.

- **Euzkadiko irakasleentzako sustapen profesionala.** Ikaskuntzarako elementu iraunkorra da, hezkuntza-ardura gero eta handiagoa lortzeko, horretarako prest dauden ikasleentzat. Sustapen hori horizontala eta bertikala izango da, irakasleek horretarako baldintzak betetzen dituztenean. Garapen profesionala binomio horrek gogora dakartzan oroimen historikorik gabe interpretatu behar da; izan ere, “benetako sustapen profesionala” ez da ikasleen araberako hezkuntza-mailen aurreratze hutsa, hezkuntza-sistemari zerbitzurik onena ematen dioten hezkuntza-etapen barruko espezializazioa baizik.

“Hezkuntza Akordio” berria lortu ondoren eta eragile sozialekin, patronalekin nahiz sindikalekin akordioa lortutakoan ere karrera horizontaleko eta bertikaleko beste aukera batzuk eskainiko dira.

- **Ikastetxeetako langileen eta irakasle-taldearen nahiz zuzendarien egonkortasuna eragin, hezkuntza-kalitatearen faktoretzat.** Frogatuta dago lotura estua dagoela irakasleen egonkortasunaren eta hezkuntza-kalitatearen nahiz lortutako emaitzen artean. Gure ustez, komenigarria eta premiazkoa da langile-taldearen egokitzapena optimizatzeko egokiak diren aldaketak berrikustea. Guk berebiziko garrantzia ematen diogu irakasle-talde egonkorren osaketari

(beti ikasle berberekin diharduten irakasleak). Horretarako, benetako taldeak osatzen dituzten langile-talde egonkorrekin hezkuntza-jarduketak egin behar dira. Irakasle-taldeen irmotasuna ere ezinbesteko baldintza da, irakasleak taldean etengabe trebatzeko, ikastetxean bertan emandako programetan, gure ustez horixe baita hezkuntza hobetzeko modalitaterik komenigarriena.

- **Irakasleen arteko trukeak, irakaskuntzako eta laguntzako jarduera mantenduz. Euzkadin, Europan edo hezkuntzaren aldetik aurreratuagoak diren herrietan**, etengabeko hobekuntza sustatzeko, baita beste hezkuntza-errealitate batzuk ezagutzeko eta geure sistema erakusteko ere, metodo oso eraginkorra baita; irakasleen arteko trukeak sustatuko dira, euren lana beste eredu batzuetako hezitzaileekin trukaturaz.

2.5- Beste hezkuntza-eragile batzuk

Hezkuntzaren espezializazio gero eta handiagoaren ondorioz, ikastetxeetan profesional-talde berriak eta irudi bereziak sartu dira. Egokitzapeneko eta dibertsifikazioko prozesu hori guztia giza baliabideetan oinarrituz berrantolatu behar da, horri aniztasunik kendu barik eta prozesua justifikatuz orain hamarkada batzuk hezkuntzat hartzen zenari zegokionez (eskolako garraioa nahiz jantokiak, eta horrek garrantzi oso handia zeukan hezkuntza-prestazioaren balorazio orokorrean), orain arte ez zeuden lan espezializatuak sortu direla kontuan hartuta (esate baterako, informatikako mantenamendurako kanpoko teknikariak).

Irakasleek lan berezietan duten presentzia nabarmendu behar da; izan ere, klastroko gainerako kideen antzeko menpekotasun funtzionala eta organikoa dute, eta gainera, horiek egotea, ematea, prestatzea edo banatzea (zuzkiduretan edo hitzarmenetan) sakon berrikusi behar da.

- **Irakasleak ez diren langileak. Horien eginkizunak berriro baloratzea.** Irakasleak ez diren langileen taldea Hezkuntza Sistemaren barruko funtsezko osagaia da, eta horren eginkizuna eta presentzia ez dira behar bezala baloratu. Atezainek eta administrazioko zein zerbitzuetako langileek egindako lanari esker, ikastetxeen funtzionamendua egokia da; langileok, gainera, benetako hezkuntza-eragiletzat jarduten dute ikasleekin eta familiekin duten harreman profesionalean. Irakasleak ez diren langileek irakasleen eta gizarte osoaren onarpena lortu behar dute, ikastetxeetan eta hezkuntza-zerbitzuetan duten eginkizuna aintzat hartuta. Hezkuntzan laguntzeko duten zeregina beharrezkoa da hezkuntza-kalitateko eredu lortzeko. Irakasleak ez diren langileen lana ondo egitea ezinbesteko baldintza da, gainerako hezkuntza-komunitateak (ikasleak, familiak eta irakasleak) poztasun-maila jakina lortzeko, kalitate-eredu batean oinarrituz.
- **Apurka-apurka kanpoko profesionalak sartu.** Hezkuntza-beharrizan gero eta handiagoak kontuan hartuta, komenigarria izan daiteke eskola-komunitateari laguntzen dioten beste profesional batzuk egotea, kanpoko kontratazioaren erregimenean, eta boluntarioen eta gizarte osoaren jarduketa ere aintzat hartu beharrezkoa izango da, bai araututako eta bai arautu gabeko jardueretan, eskolatik kanpoko jardueretan edo helduen nahiz irakasleen heziketan. Arlo

batzuk aipa daitezke, adibidez, segurtasun-arloa edo komunitatearekiko harremanetarako arloa, hiritar guztiek eskuratzeko moduko baliabide soziokulturaltzat, esate baterako, museoak nahiz liburutegiak, kiroleko zein kulturako instalazioak, ikuskizunen eskaintza; euskal erakunde kulturalik adierazgarrienak, adibidez, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Aranzadi Zientzia Elkartea, UZEI, Labayru,...; edo ikasleen aurrerakuntza intelektual, emozional, fisiko eta mental egokia abalatzten duten osasun-baliabideak.

3. HEZKUNTZAK ORAIN DITUEN ERRONKAK

Euskal Hezkuntza Sistemak, gainerako hezkuntza sistema guztien inertzien dinamikari lotuta egonik, berrikuntzako bektore berriak sustatu eta bideratu behar ditu etengabe, hezkuntzaren eginkizun soziala ahalik eta ondoen betetzeko, Euzkadik hori behar baitu bere etorkizuna segurtatzeko. Euzkadiko giza baliabideen sustapenean eta Eskola nahiz Unibertsitatea Gizartera irekitzean oinarrituriko hezkuntza-politika ezinbestekoa da Euskal Hezkuntza Sistema modernatzeko eta eraldatzeko, eta, horrela, Euzkadiko oraingo eta etorkizuneko gizarteak eskaturiko beharrezanean erantzunik egokiena emateko.

Eskola-komunitate osoaren laguntza emankorra beharrezkoa da asmo handiko proiektu hori errealitatea izateko. Hezkuntzako Txosten honen helburua, berriz, ikasleak, horien familiak eta irakasleak (banaka nahiz taldeka) beharrezko eraldaketaren eragileak izatea da, eta berori oinarritzen duten printzipioak, bestalde, irakaskuntzaren askatasuna, kalitatea eta hezkuntza-sistema demokratikoaren, integratzailearen zein integratuaren eraginkortasuna dira. Etorkizunari aurre egiteko, **Funtsezko Sei Bektore** daude: Balioen Hezkuntza, Hezkuntza Kalitatea, Eleaniztasuna, Kultura Aniztasuna, Hezkuntza Digitala eta biziarteko Hezkuntzaren Aurrerakuntza nahiz Lehiakortasuna.

Aldaketarako sei hezkuntza-faktore horiek luzatu eta hedatu egiten dute EAJ-PNVk sarritan erabiltzen duen binomioa, “*EUSKARA ETA TEKNOLOGIA*”; hori lehenagoko Hezkuntza Txostenean jaso zen, geure barru-barruko ezaugarriak (aldi berean, ezaugarri modernoa eta beste herriekiko komuna) gaurkotzeko eta mantentzeko mezu iraunkorraren bilgarritzat. Orduko lerro horiek indarrean daude orain ere: “*‘Euskara’ hitzaren bitartez, geure hizkuntzari dagokiona ez ezik, euskaldunok euskaldun egiten gaituen erreferentziazko eta barru-barruko mundu espiritual eta kultural hori ere adierazi nahi izan da. ‘Teknologia’ hitzarekin, beste alde batetik, bizitzaren alderdi materiala (produktzioa eta kontsumoa) adierazten duen guztia laburbildu nahi izan dugu, baina ikuspegi gaurkotutik eta modernotik begiratuta. Bi hitzok osaturiko multzoaren barruan, horrenbestez, bizitzaren barruko alderdi guztiak sartzen dira, geure bilakaera historikoan oinarrituz, orainetik gerora proiektatu ahal izateko*”.

“Euzko Alderdi Jeltzaleak, ‘euskara eta teknologia’ lemaren barruan, bereganatu egiten du heziketaren aldeko apustu argi hori, izateko zentzua ematen dionari, hau da, Euzkadiri egin ahal dion mesederik onena delakoan, Euzkadik Nazioarteko nazioarteko eszenatokian izan behar duen eginkizunari buruzko ikuspegi dinamikoa garatuz”.

3.1- Balioen hezkuntza. Bakerako hezkuntza

- **Alfabetatze etikoa: Balio etikoaren eta humanistikoaren ikaskuntza.** Hezkuntzan oso garrantzitsua da hautapen pertsonaleko askatasunaren eta

aurrekoek gizartean adostutako balioen arteko lotura egokia aurkitzea, iraupeneko eta berrikuntzako prozesu historiko etengabeen. Horrenbestez, geure iritzian, hezkuntza-programetan balioak jaso behar dira.

- **Ikasgeletan heziketa politikorik edo erlijiosorik ez egitea.** Katekesi konfesionala edo heziketa erlijiosoarekin edo politikoarekin lotutako beste edozein gauza, hautapen pertsonala edo familien hautapena ez duenez, hezkuntza-eszenatoki komunitik eta integratzailetik kanpo eskaini behar da, horretarako foro berezietan. Hezkuntza-programetan osagai erlijiosoa duten ikastetxeetan, euren eskubideak gauzatzeko lehentasun hori aukeratu duten familien eta ikasleen kasuan, arlo hori irakatsi eta garatu ahal izango da, baina horrek ez du inolako ondorio akademikorik sortuko, ikasleen ebaluazio orokorrean, ebaluazio horretan halako ikaskuntzarik eskaintzen duten ikastetxeek parte hartzen dutenean.

Ikastetxe guztietan (publikoak, kontzertatuak edo pribatuak), tradizioa, aurrekariak eta irakasleak kontuan hartuta, Erlijioaren ikasgaia hartzeko aukera eskainiko da (Erlijio Katolikoa, Euzkadin duen presentzia soziala aintzat hartuta, baita beste gurtza batzuk ere, horiek gizartean sustrai nahikorik lortuz gero); ikasleek eta, horiek adin txikikoak izanez gero, familiek berori aukeratzeko eskubidea izango dute, baina ikasgai horrek ez du baliorik izango ikasketa-proiektu orokorraren ebaluazioan, hezkuntza-sustapena egiteari dagokionez.

- **Euzkadiko BIZIKIDETZARAKO eta BAKERAKO Hezkuntza.** Euzkadiko Hezkuntzak tolerantzia eta errespetua sustatuko ditu; hain zuzen ere, giza eskubideen eta banakako nahiz taldeko funtsezko askatasunen adierazpen unibertsalaren esangura kontuan hartuko du, demokraziaren barruko bizikidetzaren anitza sustatzeko.
- **Banakako eta Taldeko Giza Eskubide guztiekiko hezkuntza-konpromisoa.** Giza Eskubideen ikaskuntza sistematiko eta praktikoa hori Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikasketa-proiektuaren barruko elementua izango da.
- **Belaunaldi berrietako ikasleen balioetan euskarritzea: emankortasuna, bitalismoa, eskakizuna, bihurrikeria, kritika, pragmatismoa,...**
- **Mundu-mailako ikuspegi etikoa: Iparra-Hegoa, Hirugarren Mundua,...** “Laugarren Munduaren” aurkikuntza, geure Euzkadiren atzealdean, eta hezkuntza-sistema arazo hori konpontzen inplikatzeko. Askoz ere hurbilagokoa den errealitate sozial batean, orain belaunaldi batzuk lazeria hori jasaten duen biztanleria bizi da. Batez ere, etxebizitza duina lortzeko, enplegua eskuratzeko edo seme-alabei hezkuntza askatzailea segurtatzeko beharrezko baldintzak (etxe barrukoak) eskaintzeko aukerarik ez duten familiak dira. Lan handia dago egiteko, eta, arazo oso larri horri behin betiko soluzioa emateko, beharrezkoa da gizarte-bazterkeriaren ukapenean hezitako hiritarrak sortzea. “Laugarren Mundua” osatu eta ongizateko gizartetik baztertuta dauden pertsonak ez dute ahotsik euren beharrianak jakinarazteko, eskubideak defendatzeko edo integratzearako gogoia planteatzeko.
- **Etikaren aipamena: hezitzaileak, familiak eta ikasleak protagonistatzat.** Guk ez diogu ukorik egiten balioen hezkuntzari. Izan ere, kasurik gehienetan, horrek balio orokorrak hartzea eragiten du, zorion unibertsalaren barruko motibazio sendo bakartzat azaltzen diren balioak.

3.2- Hezkuntza eleanitza

Apustu hori ez da berria Euzkadin. Hala eta guztiz ere, orain arteko eredua sakontzeko eta hobetzeko aukera daukagu, eta horixe egin beharko da, Europako hezkuntza-abangoardian jarraitzeko, eskola eta unibertsitate eleanitzetan oinarrituz, bertako eragileei, ikasleei eta eguneroko funtzionamenduari dagokionez.

➤ EUSKARA:

- **Geure altxorra den euskararen hezkuntza-defentsa (euskaldun guztion berezko hizkuntza komuna).** Euskara Euskal Herriko eta Gizateria osoko ondarerik handiena da, eta geuk daukagu berori zaintzeko ardura. Hizkuntza elebidunak, EAEko Hezkuntza Sistema garatzeko, ezaugarri bereziak ditu eta ezaugarriok estu lotuta daude geure egoera nahiz bilakaera soziolinguistikoarekin, faktore historiko, politiko nahiz sozialekin eta euskararen bizitasuna agerian jartzen duten euskalki desberdinen presentziarekin.

Azken hamarkadotako esperientziak argi eta garbi adierazi du lotura estua dagoela euskaraZ eta euskaraRI BURUZ emandako orduen eta ikasleek lortutako euskara-mailaren artean, eta beraz, komenigarria da euskaraRI BURUZko eta euskaraZko irakaskuntza sustatzea. Horri dagokionez, gaia Euskal Herri osoaren ikuspegitik aztertuta, kontuan hartu behar da Ikastolek euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko egindako ekarpen handia.

Beste alde batetik, geure berezko hizkuntza den euskararen hezkuntza-defentsa kontuan hartuta, beharrezkoa da EAetik kanpo kokatuta egon eta D eredua egoera oso zailetan eta merezimendu handiarekin eskaintzen ari diren erakundeei laguntza ematea; izan ere, euren gaineko administrazioek euskararen aurkako politika aktiboa egiten dute, esate baterako, Iparraldeko ikastolen kasuan eta Nafarroako Foru Erkidegoko Eremu Ez Euskalduneko ikastola alegal deritzenen kasuan.

Hezkuntza elebidunaren alderdi onak oso irmoak izan arren, alderdi arazotsuak ere badaude eta horiek sistematik bertatik bideraturiko premiazko neurriak behar dituzte.

Honako hauek adieraziko ditugu:

- **IRALE programaren berrikuntza** Izan ere, gaur egun hezkuntza sisteman sartzen diren irakasleek euskarazko ezagupenak dituzte eta horietako zati handi batek, gainera, lehenago ere arrakastaz hartu du parte IRALE programan. Horrenbestez, etapa berri honetan IRALE programaren eginkizuna beste modu batera orientatu behar dugu; horrela, orain arte arrakastaz bete dituen helburuak ez ezik, euskararen kalitatearen erronkari helduko dio, bai horren alderdi tekniko nahiz zientifikoetan eta akademikoetan, bai harreman informalen arloan, hizkuntza bizia, baliabide ugariak eta erregistro, lokuzio zein esamolde anitzekoa lortzeko. Hori ezinbestekoa da, ikaslerik gehienentzat erreferentziako

eredu bakarra irakasleak baitira. IRALE programak, halaber, euskarazko irakasleen gaitasuna ere indartu beharko du, irakaskuntzaren inguruan bertan, hau da, familia euskaldunetako ikasleak mintzatzen diren euskalkia menperatu beharko dute.

- **Euskaraz bizi. Euskararen erabilera dinamizatu eta giro euskalduna sortu.** Azterketa soziolinguistikoak eta hizkuntza (euskara) erabiltzeko azterketak kontuan hartuta, beharrezkoa da ikastetxean bertan erabilera akademikotik kanpo beste eredu eta eremu batzuk bilatzea. Horrela, euskararen erabilera normalizatzeko programak, bai eskola-orduetan eta bai eskola-orduetatik kanpo nahiz ikastetxetik kanpo, hezkuntza-ekintzan sustatu, bultzatu eta integratu beharreko faktore erabakigarritzat hartu behar dira.
- **Bigarren hizkuntzako hizkuntza-gaitasuna hobetu.** Euzkadiko hizkuntza ofizial guztietan erabateko gaitasuna lortzea, izan ere, hezkuntza-mailako helburu nagusia da. Gure ustez, ikasle elbidun orekatuak salbuespenezkoak dira, eta ikaslerik gehienek gaitasun handiagoa izango dute bi hizkuntzetako batean, etxean edo inguruan erabiltzen duten hizkuntzaren arabera. Nolanahi ere: a) hezkuntza-sistema irmoa eta kalitatezkoa daukagu, elebitasunari dagokionez; b) beharrezko ikerketa guztiak sustatu behar dira, hizkuntzen eta euskararen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuekin erlazionaturiko diziplinetan, geurea bezalako testuinguruei dagokienez, eta ondorioak aintzat hartu beharko dira.
- **Euzkadiko hezkuntza-eredu eleanitzak kanpoan duen irudia hobetu.**
- **Atzerriko ikasleak euskaldundu.** Euzkadiko hezkuntza elebidunaren erronkarik handienetarikoa inmigranteen integrazioa da. Sarritan, ama-hizkuntzat besterik hizkuntza batzuk dituzten haurrak A eremuan eskolatzen ari dira, eta haurroi ez zaie euskaraz komunikatzeko behar den maila eskuratzeko aukerarik ematen. Formula egokiak bilatu eta aurkitu behar dira, ikasle inmigrantearen ama-hizkuntzarekiko errespetua eta Euzkadiko hizkuntza ofizialak lortzea konbinatzeko, eta nazioarteko komunikaziorako hizkuntza bat ere menperatu beharko da.

➤ ELEANIZTASUNA:

Eleaniztasuna, ikasleek Euzkadiko hizkuntza ofizialetan eta ingelesez komunikatzeko duten gaitasuntzat hartuta, Euskal Hizkuntza Sistema ikuspegi zabalarekin aztertzen ari den erronkarik berehalakoenetariko bat da. Zenbait hizkuntzaren ikaskuntza oso ohikoa da Europako hezkuntza sistemetan, baina kasu gutxitan erabiltzen dira hizkuntza batzuk irakaskuntza-hizkuntzat. Azken urteotan, lan handia egin eta giza baliabideen nahiz baliabide ekonomikoen kopuru handia erabili da, hezkuntza-sistema elebidunaren barruan ingelesaren irakaskuntza hobetzeko. Hezkuntza-berrikuntzako proiektu eleanitzak daude eta horiek arrakasta nahiko handiarekin aplikatzen dira; proiektuok, apurka-apurka, Euskal Hizkuntza Sistema osoan orokortuko dira, eta ingelesaren ikaskuntza goiztiarra edota ingelesaren erabilera (irakaskuntzako hizkuntzat) sustatuko da.

- **Ingelesa** irakaskuntzaren barruko hizkuntzat **erabiltzea** oso konplexua da, antolaketaren ikuspegitik begiratuta. Izan ere: 1) Beharrezkoa da arloren

bateko irakasleek ingeleseko gaitasun-maila handia edukitzea edo ingeleseko irakasleek beste arloren bat ezagutzea; 2) Ezinbestekoa da material bereziak sortzea, eta materialok, kasu askotan (haur-hezkuntzako ingeleseko materialen kasuan ez bezala), desberdinak izango dira. Ikastetxe batetik bestera, ingelesez irakasteko aukeratzen diren ikasgaien arabera; 3) Beharrezkoa da edukiaren irakaskuntzan maila handia bermatzea, ikasleak atzeratuta ez gelditzeko, hizkuntza ofizialetan soilik ikasten duten ikasleei dagokienez.

Oro har, esan daiteke ingelesa irakaskuntza-hizkuntzat erabiltzeak emaitza onak ematen dituela, hizkuntza horren erabileraren intentsitatearen araberrakoak diren emaitzak. Euskararen kasuan dugun esperientziak bermatu egiten du hori: D ereduko ikasleek B eredukoek baino emaitza askoz ere hobek lortzen dituzte, eta azken horiek A eredukoek baino askoz ere hobek. Ingelesa irakaskuntza-hizkuntzat erabiltzearekin lor daitezkeen ondorioak euskararen kasukoak baino txikiagoak izan daitezke, besteak beste, gaur egun testuliburu soziolinguistikoan eta komunikabideetan euskara ingelesa baino hedatuago dagoelako, geure artean ingelesaren presentziak gorakada esponentziala eduki arren. Nolanahi ere, ingelesa ikasgai baterako edo birako irakaskuntza-hizkuntzat erabiltzea emaitza onak ematen ari da.

- **Etorkizuneko erronkak: Hirugarren hizkuntza eskolan,** metodologia orokortzat. Hizkuntza eleanitzak Euzkadin duen erronka linguistiko nagusia, izatez ere, hezkuntza eleanitza lortzea da, irakaskuntzako hizkuntzat hirugarren hizkuntza bat erabili. Ingelesaren erabilera hori orokortzea, bestalde, hirugarren hizkuntzaren sarrera goiztiarra orokortzea baino konplexuagoa da. Elebitasunaren kasuan bezala, atzerriko ikasleak sistema eleanitzean sartzea eta integratzea erronka garrantzitsua da, eta horretarako, baliabideak eta dedikazioa erabili beharko dira, programa espezifiko baten bitartez.
- **Euskal Hezkuntza Sistema hezkuntza eleanitzaren erreferente bihurtu.** Euzkadiko hezkuntza elebidunari eta eleanitzari buruzko hausnarketa kritikoa egin da. Euskal Hezkuntza Sistemaren barruko alderdi batzuk oso positiboak dira, baina beste zenbait alderdi hobetu egin behar dira. Geure hezkuntza-sistemako hezkuntza elebidunaren eta eleanitzaren barruko alderdi garrantzitsuenetariko batzuk nabarmendu nahi ditugu: 1) Eleanitzasuna aberasgarritzat eta osagarritzat hartzea, euskara ordeztu barik. 2) Hezkuntza elebiduneko eta eleanitzeko formula bereziak garatzea, eta elebitasunari nahiz eleanitzasunari buruzko nazioarteko ikerketak egitea, Euzkadi arlo horietan erreferentziazko komunitatea izateko.

Horretarako, beharrezkoa da oraingo hizkuntza-ereduak egokitzea eta malgutzea. Argi dago hizkuntza baten menperatze-maila zuzenki proportzionala dela hizkuntza horrek eskolan eta gizartean duen presentziaren kantitatearekin eta kalitatearekin. Eredu desberdinen oraingo eskari sozialaren bilakaera ikusita, eta hiru hizkuntza eredu baterantz aurrerapausoak emateko, komenigarria da euskararen eta ingelesaren kantitatea handitzea (baita espainolaren kantitatea handitzea ere, zona jakinetarako irakaskuntza-hizkuntzat) eredu malguagoak eta aldakorragoak lortzeko. Zenbait arlotan, esate baterako, Lanbide Heziketan, oraingo zurruntasunetik urrun dauden hizkuntza-eremu malguak oraindik ere beharrezkoagoak dira. Halaber, ezinbestekoa da ikasleek derrigorrezko eskolatzaren amaieran hiru hizkuntzatan lortu beharreko gutxieneko komunikazio-mailak finkatzea, batez ere A ereduan euskara menperatzeari dagokienez.

3.3- Kulturen arteko Hezkuntza eta Europar Identitatea

➤ KULTURA ANIZTASUNA:

Etorkizunean, agian, XXI. mendea erlijioaren mendea (Malrauxek iragarritakoaren arabera) edo emakumearen mendea (Miterrandek esan zuenez) izan dela esango dute. Hala eta guztiz ere, hirugarren milurteko honen hasieran oso hedatuta dagoen ziurtasun bat dago: XXI. mendea parekorik gabeko migrazioen mendea izango da, gizateriaren historia osoan inoiz ez baita halakorik ezagutu. Gure ustez, Atzeritarraren, Mestizajearen eta Lankidetzaren Mendea izango da. Izan ere, gero eta distantzia laburragokoa izango den planeta honetan elkarrekin bizi beharko dugu; gizateria hobeto komunikatuta egongo da, eta munduko edozein lekutan eta edozein pertsonarekin bizitzeko eskubidea edukiko du.

Euzkadin, beste gizarte moderno batzuetan bezala, jatorrizko komunitateek idiosinkrasiak kontserbatu eta, aldi berean, euskal hiritar (guztion artean osatuko dugun euskal gizartean erabat integratuta) izan nahi duten pertsonakopuru gero eta handiagoa biltzen eta jasotzen dute. Txosten honetan aipatutako Euskal Hezkuntza Proiektuaren kulturen arteko (kultura anitzekoa baino hobeto) bokazio argia familiari eta atzerriko ikasleei buruzko kapituluetan ere aurreratu dugu. Euzkadiko gizartean, mende askotatik hona, hizkuntza eta kultura desberdinak elkarrekin bizi izan dira; geure berezko identitatea kontserbatzen jakin eta, gainera, euskal komunitatearen bizimodu berezia hedatu dugu. Euskaldunok atzeritarrekin batera bizitzen eta kulturak partekatzen jakin dugu, Euzkadiren mugen barruan eta bertatik kanpo.

- **Euskal identitate kulturala ikasle guztientzat, euren jatorria edo Euzkadin bizi izandako denbora edozein izan arren.** Informazioko eta komunikazioko oraingo sistema telematikoak, sarean dagoen gizateriarentzat berezkoak diren sistemak, baliozkoak izango dira helburu horretara bideraturiko bisitetarako eta trukeetarako. Era berean, Euzkadin bizi nahi duten atzeritarrek osaturiko euskal hiritartasun berria dutenen jatorrizko herriek eta kulturek baliabide erabilgarri guztiak edukiko dituzte, Euzkadiko ikasle guztiek ezagutzeko eta partekatzeko.
- **Euskal identitatearen ezaugarriak hezi eta landu, geure historia, kultura eta tradizioak ikasita eta ezagututa.** Geure balioak eta geure identitatea egunero eraikitzen eta adierazten dira, geure berezko tradizio kulturalen bitartez, euren adierazpen guztietan; euskal sustraiak dituzte, eta kanpotik iritsitako alderdi kulturekin aberastuta daude. Hezkuntza sistemak, neurri handi batean, euskal kultura suspertu, mantendu, handitu, iraunarazi eta gaurkotu egin behar du, kultura horrek historia osoan beti ez baitu tratu onik jasan.
- **Hezkuntza sistema osoari kulturen arteko izaera eta bokazioa eman,** haur-etapetatik unibertsitateko etapetaraino, ikasle guzti-guztiak horren barruan sartuta. Integrazioari buruz daukagun erronka nagusia kulturen arteko

hezkuntza sortzean oinarritzen da, ikasle guztientzat baliozkoak diren planteamenduekin, atzerriko ikasleei eta horien ikaskideei soilik bideraturiko planetan oinarritu barik.

- **Geure gizartera oraintsu iritsitako atzerriko familien eta ikasleen hezkuntzaren tratamendua eta aukerakotasuna hobetu.**
- **Kulturen arteko heziketa, derrigorrezko irakaskuntza osoaren barruko zeharkako gaitzat.** Berdinen arteko desberdintasunak eta dibertsitatea onartzeko, beharrezkoa da eskuhartze teorikoa eta praktikoa gauzatzea, eta hori, berriz, Hezkuntzako Txosten honek hezkuntzaren barruko ikasketaproiektutzat sustaturiko zeharkako arloaren barruan sartzen da; horrela, kulturen arteko hezkuntza deritzon esamolde ospetsuaren gaineko erretorika politikoa eta hezkuntza-mailakoa ez da murriztuko azaleko eta eraginkortasuneko diskurtso batera.
- **Beste erlijio edo kultura batzuetako tradizio, ikur edo janzkeretik gehieneko tolerantziarako hezkuntza.**
- **Kulturen arteko hezkuntza gizartean eta hezkuntzan bertan bizitzea, aukera historikotzat, eta ez arazotzat.**

➤ **EUOPAR IDENTITATEA:**

Europa geure eremu geografiko, ekonomiko eta politiko naturala da. Europari buruz irakastea eta ikastea lehentasunezkoa da hezkuntzaren arloan. Europako hezkuntzaren bidez, Europar Batasunaren dimentsio anitzeko garapenarekin batera, Europa hezkuntzaren, kulturaren eta gizartearen arloan duen Eremu nagusia izango da, europar hiritartasun berriaren zati osagarritzat.

Geure irakasleek eta, batik bat, ikasleek European zehar bidaiatu beharra dute, berori ezagutzeko, horrekiko konpromisoa hartzeko eta euren burua bertan kokatuta ikusteko. Euskal identitatearen dimentsio europarra honako hezkuntza honetan gauzatzen da “European”, “Europari buruz” eta “Europarako”. Hau da, Europari “buruz” behar ditugun ezagupenak, hizkuntzaren, gizartearen eta teknologiaren arloan. Euskal hezkuntzatik ere europartasun eraikigarria sustatu behar dugu, tokiko edo eskualdeko identitateak proiektzio unibertsalagora doan europartasuna; izan ere, europartasuna bere burura edo ikuspegi kontinentalera mugatuz gero, eurozentrismo hutsa izango litzateke. Garai historiko berri honetan, Euskal Herriaren zatitza gara protagonistak, eta gaitasun iraunkorra lortu beharko dugu, bizitza osoan zeharkako gaitasuna, Europa hobeto ezagutzeko, Europa integratuagoa eraikitzeke eta Euzkadiko eta Europako hiritarrak izateko.

Berriro ere, eta oraingoan ere zehaztasunarekin eta aukerarekin loturiko arrazoi berberak kontuan hartuta, Ibarretxe lehendakariaren “*Bizikidetzarako Itun Berria*” deritzoneko paragrafo hau hartu dugu hitzez hitz: “*Euskal Herria historiaren hasiera-hasieratik dago European barruan, eta Europar Batasuna,*

berriz, Euskal Herriko erakundeen eta Espainiako nahiz Europako erakundeen arteko etorkizuneko harreman sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak gauzatzeko eremutat egituratuta dago orain. Europako eremuan, zorionez, Espainiako estatuan oraindik ebatzi gabe dauden eztabaidak gaindituta daude, bai gizartean eta bai intelektualen artean. Funtsezko alderdi eta printzipio demokratiko batzuk, esate baterako, elkartze askea, Herriek erabakitzeke duten eskubide demokratikoa, partekaturiko subiranotasuna, mugaz gaindiko lankidetzeta edo estaturik gabeko nazioen identitateen errespetua, normal-normal onartzen dira Europan, eta Espainiako estatuak ere bide horretatik jarraitu beharko du”.

- **Europa soziala eta balio humanistikoduna eraikitzen duen Hezkuntzaren aldeko apustua.** Hezkuntzaren eta Kulturaren Europaren aldeko apustua egiten dugu, eta horrek erregionen eta nazioen arteko lankidetzeta bultzatzen duen elkartasun-ikuspegia proiektatu behar du, herri guztiak elkarri hurbiltzeko eta bertako giza garapena gauzatzeko modurik egokiena delako. Europaren hezkuntza-dimentsioan sinesmen handia daukagu, eta gainera, Europaren batasunaren lehenengo sustatzaileetarikoa izandako Jean Monneten nahia lortzearen aldekoak gara, eta, horrek esandakoaren arabera, “*Berriro hasi behar izatekotan, hezkuntzatik hasiko nintzateke*”. Gure ustez, oraindik garaiz gabiltza eta Euzkaditik horixe izango da geure apustua.
- **Europar Batasunekoak izatearen sentimendua, horrek dakarren eragin kulturala eta linguistikoa geureganatuz.** Europako hezkuntza-dimentsioa eta europartasunaren birbaloratzea, gu Europako gizartean eta lanean integratzeko funtsezkoak izateaz gain, baliabide estrategiko bikainak dira geure hezkuntza sistemaren kalitaterako, hizkuntzako eta kulturen arteko ikasketa-proiektuetan eta metodologietan oinarrituz; halaber, funtsezkoa da geure giza baliabideen heziketa integralerako (ikasleak, irakasleak, familiak...) eta geure kulturaren eta hizkuntzaren biziraupena nahiz hedapena segurtatzeko.

3.4- Hezkuntza digitala Informazioaren Gizartean

Gizarteratzeko eta laneratzeko gaitasuna ematen duen hasierako heziketa gaindituz, heziketa iraunkorra lortu beharra (lehendik ez zeuden arloetan) geure garaiko ezaugarri axiomatikoa da. Etengabeko hobekuntza eskatzeaz gain, gizarte garaikideek aukerak eta baliabideak dituzte, eta jarduera askotan geure emaitzak hobetzen dituzten bitartekoak nahiko erraz lortzen dira; horrela, garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukerei ate asko irekitzen zaizkie. Sare telematiko sofistikatuek (esate baterako, Internet) komunikazioko eta jakintza eskuratzeko bide berriak eskaintzen dizkigute, telefoniako, irratiko eta telebistako modalitate berriek eskaintako zerbitzuak osatuz. Inguru multimedia horiek jakintza egituratzeko modu berriak ezartzen dituzte, ahozko eta testuen bidezko ikaskuntzaren linealtasuna gaindituz eta ikaslearen inplikazio aktiboagoa nahiz integralagoa sustatuz.

Hezkuntza digitala, horren bilakaera, sustapena eta laguntza, bestalde, erreferentziako puntua izan behar da eskola-sistema gaurkotzeko eta oraingo une historikoan dagoen sistema sozio-teknologikora egokitzeko. Oraingo aurrerakuntza

teknologikoa gizarteen arteko eta gizarte bakoitzaren barruko bereizte-faktore nagusienetarikoa da. Hezkuntzak, prozesutzat baino gehiago sistematizat ulertuta, erantzuna eman behar die ikasleek hezkuntza-sistemaren bitartez eskuraturiko edukiak, balioak, emozioak eta bizitza-zentzua garatzeko sistema sozialaren errealitateari. Arreta berezia teknologiaren bilakaeratik bereizteak eta teknologia horren egokitzapena hezkuntzaren helburuetatik baztertzeak areagotu egiten du gizarteak egindako ahaleginen arteko anomiarako aukera, eta ahaleginok etorkizuneko kideak lehiatzeko, lankidetzan ibiltzeko eta erantzukizuna edukitzeko erabateko aukerekin integratzera bideratu behar dira. Lubaki digitala deritzonak areagotu egiten ditu gizarteen arteko eta gizarte barruko desberdintasunak; horrenbestez, Euzkadiko hezkuntza-sistemak arreta berezia jarri behar du teknologia berriak bertako errealitatean sartzeko. Sartze horretarako, zenbait bide erabil daitezke, eta horien artean honako hauek aipatuko ditugu: Biztanle guztiei Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia eskuratzeko erraztasunak ematea; Hezkuntza-prozesuan Informazioaren eta Komunikazioaren teknologien erabileraren hezkuntza-balioa bermatzen duten ikasketak sortzea; hezkuntza-eragileek eta hezkuntzaren protagonistek teknologia horiek eraginkortasunez erabiliko dituztela.

- **Hezkuntza digitaleko paradigma berri baterantz, eta paradigma hori ikastetxeen, ikasleen, irakasleen eta familien sarbide unibertsalean oinarrituko da.**
- **Informazioaren Gizartera egokituriko Hezkuntza Kognitiboa ezartzea, “Hezkuntza Sistema Digitala” deritzon programa berri baten bitartez (HSD-SEDV).**
- **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, hiru ataletan euskarrituriko aldatetaren oinarritzat: muga kultural eta linguistiko berriak; ikasleen eta irakasleen mugikortasun erreala eta birtuala; eta teknologia, aplikazio eta baliabide berriak.**
- **“Lubaki digitala” ekiditea, Interneten bidez eskaintzen diren zerbitzuak demokratizatuz, ikastetxeen, ikasgelen eta ikasleen mailan: Ekipamendurako beka eta etxeetatik konektatzeko aukera.**
- **Euzkadiko hezkuntza informazioa Interneten modu masiboan sartzea.**
- **Euskararen hizkuntza-ikerketari lehentasuna ematea, eskolaren, lanaren edo etxeen barruko erabilerako aplikazio informatikoen eta telematikoen euskarritzat.**
- **Euskal Hezkuntza Kate Telematikoa sortzea, baita tele-hezkuntzako beste formula batzuk ere, esate baterako, bideo-konferentzia anitza.**

3.5- Aurrerakuntza eta lehiakortasuna. Giza Kapitala: Pertsona Nagusien biziarteko hezkuntza

Hezkuntza mailan dugun beste erronketariko bat biziarteko hezkuntzaren paradigma errealitate bihurtzea da, hezkuntza formaletik eta ez-formaletik. “Aurrerakuntza” hitzak, batez ere, “aurreratzeko edo hobetzeko apurka-apurkako aldaketa” adierazten du, edo “aurrerakuntza, aurreratzea edo perfektionatzea, bai maila pertsonalean eta bai maila sozialean. Izan ere, zerbait aurreratzen ari den ala ez egiaztatzeko, erreferentziatzat hartutako eredu edo ideal batekin konparatu behar da. Garapenaren ideia, gizartearen apurka-apurkako aldaketatzat, XVIII. mendeko bigarren erditik eta XIX. mendetik hasi zen bere forma modernoa hartzen. Azken batean, aurrerakuntza eta garapen ideien arteko elkartzeko hori Historiaren ikuspegi baikorraren eraginezkoa zen, baina hori aldatu egin zen, XX. mendeko lehenengo erdiko gertaera historikoen ondorioz. Bigarren Mundu Gerraren amaieran, garapen ideiarekin lotutako baikortasuna berpiztu zen, eta horrek ekintza kontzientea nabarmendu zuen, aldaketa norabide jakinean gauzatzeko, baliabide erabilgarri guztien erabilera koordinatuaren bitartez.

- **Aurrerakuntzaren eta Lehiakortasunaren ikuspegi humanistarekin lotutako ereduak aukeratzea.** Geure hezkuntza-eredua hiru zutabetan euskarrituriko gizarte-eredu batean oinarritzen da: Bizitza, elkarrizketa eta errespetua. Eredu Humanista da eta, horren arabera, pertsona izaki askea, erabakitze gaitasuna duena eta bere banakako nahiz gizarteko historiaren jabea da. Horrenbestez, pertsonaren izaera utopikoa eta aldatzailea errebindikatzen da, pertsona etengabe hobetzeko gauza baita. Halaber, horren izaera irekia edo komunikazioa nahiz dialogoa sortzen duen gizakien arteko “topaketa” ere azpimarratzen da; horrela, elkarrizketaren bitartez, bizitzaren errealitatea beste pertsona batzuekin parteka daiteke, horiekin elkarreraginez eta adostasunak bilatuz, egia eta zuzentasun etikoa bermatzen duten inperatibo metodologikotzat.
- **“Gaitasun pertsonalen eta profesionalen” garapena, hezkuntzaren eta heziketaren ereduaren ardatz gisa.** Europar Batasunean sartu garenetik, “gaitasun” hitza adiera-sorta oso berezi batekin erabiltzen ari da, arauturiko heziketaren, heziketa iraunkorraren eta lanbide-heziketaren arloan. Gobernuak, enpresek eta sindikatuek heziketa-politikak, erakunde-planak eta lanbide-ziurtagiriak koordinatzeko erabiltzen dute hitz hori. Izan ere, hitz hori orain dela hogeitau urte baino gehiago sortu zen, eskolako emaitzek eta gaitasun- nahiz adimen-testek lanbide-arrakasta aurreikusteko balio ez dutela adierazteko, eta eguneroko bizitzaren barruko arazoetara eraginkortasunez egokitze ere balio ez dutela adierazteko. Pentsaera berri horri esker, “gaitasun” hitzak, azken hamar urteotan, presentzia handia lortu du testuetan eta gisa-baliabideak kudeatzeari buruzko hitzaldietan.

3.6- Kalitatea: hezkuntza-bikaintasuneko ereduak

Kalitate-sistemak, azken hamarkadotan landutako metodologiekin, enpresen eta erakundeen barruko sektore guztietara hedatu dira. Industria-inguruetarako sortu arren, beste arlo batzuetan espezializatzen joan dira, eta aplikazio-eremuertariko bat hezkuntza izan da. Hezkuntza kalitatea sistema tradizional batean zehaztea zaila da, are gehiago ikasgelako eta urruneko sistema digital

berritzaileak dituen etorkizuneko hezkuntza-eredu batean. Nolanahi ere, hezkuntzaren barruko komunikazio-prozesuak funtsezkoak dira eta hezkuntzaren berezko zatiak direla esan daiteke; komunikazioaren bitartez, horren hezkuntza eta adierazpen anitzetan, irakasleek eta ikasleek informazioa, ezagupenak, trebetasunak, jarrerak eta balioak trukatzeko dituzte.

- **Zuzendaritza Taldearen gidaritza, Hezkuntza Kalitatearen osagaia.** Zuzendaritza-taldeen gidaritza hobetzea ezinbestekoa da, hezkuntza-komunitatearen goi-mailako kudeaketarako eta proiektu komunaren inguruko inplikazio ahalik eta handiena lortzeko nahiz erantzunik onenak eskuratzeko. Zuzendaritzako gidaritzaren barruko kalitate-jarduketa hori geure ikastetxeetako zuzendari askok eta gainerako eskola-eragile guztiek onartzen eta sentitzen dute.
- **Hezkuntza Bikaintasuneko ereduak, Euzkadiko hezkuntza-errealiterako bereziak.** Euzkadiko ikastetxeetan (etapa, eremu eta eredu desberdinetan) sortu eta hazi diren proposamenei lehentasuna eman behar zaie. Hobekuntzarako, beharrezkoa izango da plan estrategikoak zehaztea eta prozesuen arabera lana egitea, eta hobekuntza hori kontuan hartu, ebaluatu eta onartu egin behar da. Eskola-komunitateak adostasuna lortu behar du, talde profesional desberdinen lana egituratuko duten lehentasuneko ardatz komunak erabakitzeko. Adosturiko adierazleak erreferentziatik bildutako datuen balorazioa lagungarria izango da emaitzak norabide egokian hobetzeko sartu behar diren aldaketei buruzko erabakiak hartzeko.
- **Bikaintasuneko unibertsitate-sistema euskal gizartearen zerbitzuan, Europako unibertsitate-esparruan.** Honako honen aldeko apustua egiten dugu: unibertsitateko IRAKASKUNTZA baloratzea; unibertsitatean eta unibertsitateetik, kalitateko ZABALKUNDE SOZIALAREN kultura indartzea, ikerketa zientifikoaren eta jakintzaren barruko kontzeptu- nahiz prozedura-mailako lorpenei buruz; eta geure unibertsitateetan IKERKETA sustatzea, eta ikerketa hori nazioartean homologatuta eta euskal gizarteak (hiritarrek eta enpresak) dituen beharrezko zerbitzuan egongo da. Gure ustez, Ikerketaren arloko eskumen guztiak (Gernikako Estatutuan jasotakoak) geureganatu eta, bien bitartean, esfortzu endogenoa egin behar da. Halaber, unibertsitate-jarduketaren gaineko kontrol sozialeko sistemak ere hobetu egin behar dira, horien finantziarioa helburuen eta programen arabera modulatu.
- **Euzkadiko unibertsitateen arteko eta derrigorrezko hezkuntzaren, LHren eta unibertsitate-hezkuntzaren arteko koordinazio instituzionala.** Hezkuntza-maila desberdinen arteko koordinazioa hobetzeko protokoloak eta formula ezarriko dira, batez ere, derrigorrezko hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren, Batxilergoaren eta Unibertsitatearen artean, estamentu akademikoen, instituzionalen, enpresakoen, sindikalen eta sozialen partaidetzarekin.

4. POLITIKAK ETA ESTRATEGIAK

4.1- Ikasketa-proiektuarekin, metodologiarekin, ebaluazioarekin eta baliabide didaktikoekin loturiko alderdiak.

Euzkadiko hezkuntza-sistemaren berrikuntzak aurre egin behar dio XXI. mendeko erronketan murgildutako hezkuntza-errealitateari, XX. mendean jaiotako eta hezitako irakasleekin eta, antolaketari nahiz ikasketa-proiektuei dagokienez, neurri handi batean XIX. mendekoa den hezkuntza-egiturarekin. Ezinbestekoa da apurka-apurka baliabide garaikideak sartzea eta denbora nahiz eremuak aro digitalaren arabera antolatzea, baina hori berez ez da nahikoa, eta segurutik zaharkituen gelditu den alderdia kontuan hartu beharra dago, hau da, jarauntsitako ikasketa-proiektua eta horren banaketa estankoa. EAJ-PNVk Euzkadirako bultzatzen duen Hezkuntza Proiektuak argi eta garbi islatu behar du Euskal Hezkuntza Sistemaren aldaketarako euskarritzat hartuko duen ikasketa-proiektuaren berrikuntza. Europak emandako gomendioak paradigmaticoak izango dira, eta aintzat hartuko dira OCDEren, Europako Kontseiluaren eta UNESCOren jarraibideak.

- **“Euskal ikasketa-proiektua” indartu.** “Euskal ikasketa-proiektua” defendatzen dugu (oraindik ez baitugu halakorik) Europarekiko konbergentziaren barruan (ikasketa-proiektuen eta hezkuntzaren konbergentzia). Europako ikasketa-proiektuetan eta lan-arloan egon behar den normalizaziorantz aurrerapausoak ematearen aldeko apustua egiten dugu; horrela, gutxieneko ikasketa-proiektu komuna ezarri eta horrek Europaren identitatea nahiz historia nabarmenduko ditu; gainera, hezkuntza-sistema bakoitzerako arlo bereziak edukiko ditu, gizarte bakoitzaren beharrezan eta berezitasunak kontuan hartuta. Europako Kontseiluak emandako gomendioek, Amsterdameko Itunean eta Lisboako gailurrean enplegurako heziketaren garapenari buruz jasotako arloetan, denok batera egin beharreko bidearen jarraibidea (hezkuntzaren eta lanaren arlokoa) adierazi dute.
- **Aholkularitza Batzorde espezializatua sortu, Euzkadiko ikasketa-proiektua zehazteko.** Horren proposamenen barruan, berehala sartu beharreko gomendioak sartuko dira, eta gainera, ikerketa- eta saiakuntza-arloak ere adieraziko dira, gero ikasketa-proiektuetan aldaketa orokorrak egiteko, eta horiek, apurka-apurka, etapa hezkuntza-maila desberdinetako oraingo ikasketa-proiektuetan sartuko dira.
- **Euzkadiko ikasketa-proiektua, geure ondare kulturala eta linguistikoa kontserbatzeko nahiz proiektatzeko, eta Euzkadiko hiritarrak oraingo mundu globalizatuan bizitzeko eta bertan lan egiteko.**
- **“Ikasketa-proiektu modernoa” sortu eta gaurkotu.** Beharrezkoa da hezkuntza-sistemaren berrikuntza orokorra sustatzea, hezkuntza-tratamendua jaso dezaketen arazo sozial ugarietarako soluzioak aurkitu ahal izateko, hezkuntza-etapa bakoitzaren ikasketa-proiektu orokorraren kongruentzia mantenduz.

- **Kultura humanistikoa, zientifikoa eta teknologikoa.** Hezkuntzak, kultura humanistiko zorrotzarekin eta sistematikoarekin batera, zientzia eta teknologia garaikideen interpretazio-ulermena finkatu behar du, horiek kulturaren barruan kokatuz, sormenen ondorioak kulturaren aldetik menperatzeko, antzina-antzinako banantzeak apurtzen dituen eremu kontzeptual eta teoriko baten bitartez.
- **Humanitateak ikasketa-proiektuan indartu, Euzkadiko ikasle guztientzat.**
- **Hemengo eta atzerriko hizkuntzak indartu.**
- **Ahozko hizkuntza eta literatura sustatu, batez ere euskarazkoa, haurren ahozko literatura eta bertsolaritza bezalako adierazpenen bitartez.**
- **Bide Hezkuntzaren derrigorrezko ikasketa-proiektua.**
- **Euzkadiko hezkuntza-sektore editoriala bultzatu, merkatu autoktonora soilik mugatuta ez dagoen sektorea.** Euzkadiko hezkuntza-sektore editorialak dagoeneko ibilbide luzea eta oso profesionala dauka, baina oraindik ere oztopoak ditu zabalkundeari eta merkatuari dagokionez, eta oztopo horiek gainditu egin beharko dira. Administrazioarekiko eta hezkuntza-komunitatearekiko lankidetzaren etengabea eta zuzena, foro komunitario eta lankidetzako beste modalitate batzuetan, oso emankorra izan daiteke epe ertainean eta luzean.

4.2 - Administrazioaren eta eskolaren berrantolaketa

XXI. mendeko “hezkuntzaren eta heziketaren gizarte” honetan, inoiz izandako hezkuntzarik onena antolatzeak aukera daukagu, aldaketa egokiak eginez eta heziketa konpentsaziozko eskubide demokratiko unibertsaltzat garatuz. Hala eta guztiz ere, prozesu hori ez da automatikoa izango; gizarte osoaren eta, batez ere, hezkuntza-komunitatearen inplikazioa beharko du, eta segurutik, Hezkuntza Administrazioak inbertsio handiagoa eta hobe egin beharko du, gutxienez BPGren %7a bertara bideratuta (Europar Batasuneko herrien batez bestekoa), eta kopuru hori gizarterik aurreratuenetan %9,5koa izatea komeni da.

Horri dagokionez, hezkuntza-inbertsioaren diagnostiko erreala egin behar da; izan ere, hezkuntza-eskuhartzeak, horien giza baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin, besteak beste toki-administrazioek eta lurralde-administrazioek egiten dituzte, arlo oso desberdinetan: mantenamendua, helduen irakaskuntza, eskolatik kanpokoak nahiz osagarriak diren jardueren finantziaketa, baliabideen zein instalazioen erabilgarritasuna, etab. Gainera, laguntzako eskuhartzeak eta heziketa-izaera argia eduki arren laguntzakotzat hartzen diren beste batzuk ere aipagarriak dira. Egin-eginean ere, hurbileko eskariak leku askotan jarduketan eta hezkuntza-baliabideen gorakada eragin du, eta horren erantzukizuna toki-administrazioak dauka. Eskuhartzeen eta inplikaturiko agenteen aniztasun hori,

bestalde, lanbide-heziketa osoan ere (arautua eta arautu gabea) argi eta garbi ikusten da, hasi lanbide-hastapenetik eta gorengo mailako zikloetaraino.

Hezkuntzako Txosten honek ez ditu proposatzen Hezkuntza Administrazioetik soilik sustaturiko eta Euzkadiko ikastetxe guztietan legeen, aginduen nahiz dekretuen bidez ezarritako berrikuntza jakinak. Hezkuntza modernatzearen bidea gizarte osoaren eta, batik bat, hezkuntza lanetan inplikaziorik handiena duten eragileen konpromisotik eta partaidetzatik sortu da. Gure proposamenak eztabaidatzeko, zuzentzeko eta hobetzeko planteatzen dira, eta horretarako, hezkuntza-eztabaida sakona egin beharko da, foro politiko desberdinetan eta iritzi publikoaren artean irekitako eztabaida. Gure ustez, “tekniko hutsak diren paradigmak” aplikatzeak (horiek aditu ospetsuen babesarekin) ez du bermatzen Euzkadiko hiritarrek arlo horretan eskaturiko helburuak lortuko direnik. Hezkuntza-praktikak eraginkortasuna lortu behar du, ikasle, ikasgela, sare eta abar bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, irakasleek, zuzendariak, familiak eta abarrek onarturiko aldaketan bitartez (ikasketa-proiektuetan, metodologian, antolaketan eta abarrean egindako aldaketak). “Testuinguruarekin estuago lotuta dagoen eta kritikoagoa den paradigma” beharrezkoa da ikuspegi berriak irekitzeko eta, horrela, hezkuntza-sistemako kide guztien partaidetza nahiz inplikazioa duen hezkuntza-berrikuntza lortzeko, gizartearen erabateko lankidetzarekin.

4.3- Eskarira bideraturiko hezkuntza-sistema

Hezkuntza-sistema berria arautu behar duen oinarrizko kontzeptu bat hezkuntza-eskariaren nagusitasunean oinarritzen da. Ikastetxeen sistema eskaintzako irizpideen arabera mugitu da beti, eta eskaintza hori oso anitza izan da eta horren gaitasunak kalitatea sustatu du. Gaur egun, eskarian oinarrituriko sistema batek hobeto segurtatuko du Euzkadiko hezkuntza-beharrizanak bete egiten direla. Aldaketa apurka-apurkakoa baina iraunkorra izan behar da. Lehendik daudenak ez ezik, eskariaren nahia betearazten duten mekanismoak ezarriko dira, eskatutako motaren barruko eskaintza sortuta eta gizartearen onarpen txikia duen eskaintza murriztuta. Malgutasun hori ikastetxe eta eredu guztietara hedatuko da, horien titularitatea edo kokalekua kontuan hartu barik.

4.4- Hezkuntza Sistema Publikoa birsortu

Ezinbestekoa da titularitate publikoa duten ikastetxeak kudeatzeko eredu berriro antolatzea, unibertsitatekoaren aurreko sare publiko osoaren funtzionamendua arautzen duen kudeaketa-organoa (“Hezkuntza”) sortuta. Horrela, hezkuntza-administrazioa eskola-sareen multzoaren gainetik egongo litzateke, ikastetxe publikoen baliabide autonomoak kudeatzen dituen erakunde autonomotzat, eta ikastetxeok, horrela, benetako Sare edo Sektore Publikoa

osatuko lukete. Hezkuntza Saileko oraingo zerbitzuak euren eginkizunaren arabera banatuko lirateke, batzuk “Hezkuntzara” igarota (esate baterako, langileak, planifikazioa, obrak,...), eta komunak Hezkuntza Sailean geldituko lirateke (Ikuskapena, Hezkuntza Berrikuntza,...). “Hezkuntzak”, beste alde batetik, eskola-barrutian eskaintzarik ez duen hezkuntza-eskari osoari erantzun egokia eman beharko dio, zonak eta garraioa kontuan hartzen dituzten irizpideen arabera, eta irizpideok hezkuntza-administrazioak ezarriko ditu. Emandako zerbitzuak, berriz, balorazio batekin tasatuko dira, kasuan kasuko ezaugarriak aintzat hartuz.

4. 5- Hezkuntza-sareen antolaketa eta finantziazioa

Hezkuntza publikoaren eta kontzertatuaren arteko dualtasuna gainditu egin behar da, funtzionamendua ikastetxe publikoen sare autonomotzat hartuta, “Hezkuntzaren” bitartez (horrek bertako baliabide guztiak kudeatuko lituzke, sare kontzertatuarekiko eskumen osagarriarekin), eta horrela, Hezkuntza Sailearen bidezko kudeaketa argiagoa eta orekatuagoa izango litzateke. Hezkuntza-sistema osoari aplikaturiko hezkuntza-kalitateko irizpideek eta eskola-parametroen konbergentziarako neurriek (ratioetan, finantziazioan eta antolaketa-ereduetan) Euzkadiko hezkuntzaren eraginkortasunaren hobekuntza sustatuko dute.

- **Euskal Hezkuntza Sistemaren ANIZTASUNAREN eta DIBERTSIFIKAZIOAREN balioa.** Euzkadiko hezkuntza-errealitatea ondoen zehazten duen ezaugarrietako bat, neurri handi batean Euzkadiko eleaniztasunaren eraginezkoa, hezkuntza-eskaintzaren aniztasuna eta dibertsitatea da, eta horren jatorriak era askotakoak dira; horiek barne-harreman estuko hezkuntza-saretzat garatu eta finkatu dira, eta kasuan kasuko formula berezien bitartez antolaturik daude. Sareen aniztasun horrek lehiakortasun handia eragin du, sistema bakoitzaren hobari nagusiak bilatuz nahiz bultzatuz eta partaide guztien hezkuntza-kalitatea sustatuz. Euskal Gizarteak, orain arte egindako hautapen iraunkorarekin, berretsi egin du ikastetxeen aniztasun hori, ikastetxeak aukeratzeko gaitasun handiagoa ematen baitu; hezkuntza-administrazioak, berriz, familien hautapen hori askatasun ahalik eta handienarekin eta aukera-berdintasunean egiten dela bermatu behar du. Administrazioak bereizte-estrategia bat eragin beharko du, sareen edo ikastetxeen araberako espezializazioa sustatzeko eta, horrela, kalitatean, zerbitzuan, metodologian, berrikuntzan eta abarrean lidergoak bilatzeko. Halaber, dibertsifikazioko eta ikuspegiko estrategiak ere bultzatuko dira, hezkuntza-arretarako produktu eta formula berriak garatzeko, eta arlo edo segmentu batzuetan hobekuntzen pilaketarako estrategiak ere bultzatuko dira, beste modalitate batzuekiko lehia-hobariak lortzeko.
- **Erakunde publikoek edo pribatuak emandako zerbitzu publikoa. Eskola publikoaren eta pribatuaren arteko kontraesana desagitea.** Sare publikoaren eta kontzertatuaren arteko oinarrizko osagarritasun-irizpidea (subsidiarioritasun-irizpidea baino hobea) nagusituko da, ikasleen eta familien “hezkuntzarako eskubidea” kontuan hartzen duen zerbitzu publikoa emateko,

eta horiek, aukera-berdintasunean, euren nahi duten modalitatea aukeratu ahal izango dute; gainera, beka-politika baten bitartez, egoera soziokulturalik eta linguistikorik txarrenak dituzten ikasleen eskolatzea bermatuko da. Eskaintza publikoak, berriz, hiritarrek edozein kasutan, lekutan eta egoeratan egindako edozein eskari betetzeko eskola eskaintza egokia sortu beharko du, epe ahalik eta laburrenean, hezkuntza-arreta edozein unetan bermatzeko.

- **Eskola-erakundearen Autonomiaren eta Bikaintasunaren aldeko apustua, horien titularitatea publikoa edo kontzertatua izan arren.** Ikastetxe guztien autonomia ahalik eta handiena lortzeko proposaturiko neurri guztiak aplikatzearen aldeko apustua egiten dugu, hezkuntzaren bikaintasuna eta kalitatea bermatzeko modurik onena delako, horien titularitatea publikoa edo kontzertatua izan arren. Ikastetxe guztiek antolaketa-mailako gehieneko autonomia izango dute arlo guztietan (antolaketa, ikasketa-proiektua, programazioa, giza baliabideen nahiz finantza-baliabideen kudeaketa,...), betiere indarreko legeria zorrotz beteta, eta horrek gutxieneko arauketa sustatu beharko du, funtsezko alderdiei dagokienez, eskola-eskaintzaren eta familien nahiz gizartearen eskarien arteko egokitzapena eragiteko.
- **Ikastetxeen autonomia ahalik eta handienaren aldeko apustua.** Ikastetxeen pilaketa egiteko erronka, horren ondorio guztiak kontuan hartuta, honako honi buruzko uste sendoa izatean oinarritzen da: kudeaketaren autonomiarik handieneko ereduak, alderdirik gehienetan, aurrekorik gabeko hezkuntza-kalitateko mailak lortuko ditu eta neurri hori batez ere titularitate publikoa duten ikastetxeetan izango da probetxuzkoa. Ikastetxe guztiek, publikoek eta kontzertatuek, eskola-erakundetzat bikaintasuna lortuko dute berezko kudeaketaren eskumen-maila ahalik eta handiena lortzen dutenean. Ikastetxeak konpentsazio sozialaren katalizatzaileak izango dira, ikasleen eta familien azpitalde desberdinen artean. Lehen ere azpimarratu ditugu bi alderdiok, baina lan hori ikastetxeen eta bertako kideen nahiz arduradunen etengabeko erreferentzia izan behar da, eta bertan, heziketa-ekintzak arrakasta izan dezake hiritar guztien kohesio sozialean, gure gizartean oraindik bizirik dauden gabezia itzelak gaindituta.

4.6- Giza baliabideak eta aurrekontuak optimizatu

Gehienbat irakasleei buruzkoa den atal hau kasu paradigmaticoa da, eta, horren garrantzia eta konplexutasuna kontuan hartuta, testu honetako azken kapituluaren defendatuko dugun “Hezkuntza Akordioa” izenekoaren barruko aurrerakuntzak lortu ahal gertatu behar den garapen sekuentziaduna edukiko du. Nolanahi ere, ezer komentatzen hasi baino lehen egin beharreko lehenengo hausnarketan, aplikaturiko langileen arloko aldaketa-proposamenei buruzko hezkuntza- eta gizarte-mailako azterketa nahiz eztabaida zabala egitearen garrantzia nabarmenduko dugu; halaber, arlo sozialean, politikoan eta sektorialean aurretiazko negoziazioa egin beharko da, enpresa- eta lan-eragile guztiekin, baita inplikaturiko erakunde guztiekin ere. Hezkuntzaren arloan, pertsonekin lan egin eta pertsonak hezten dituen sektore batean, hartutako neurriak guztiz eraginkorrak izateko, ezinbestekoa da denek neurri horien

aldekoak izatea, eta adostasun hori lortzeko, alderdi interesatu guztiekin denbora inbertitu eta negoziazioa egin behar da.

- **Behin betikoa ez den langileriaren arauketa, sektore publikoan eta kontzertatuan.** Langileriaren ikerketak eta zehaztapenak aldi baterako langileen gehieneko ehunekoak finkatu beharko ditu, hezkuntza-beharrizanen arabera, eta giza baliabide horietan itundutako kudeaketa-sistemak ere finkatuko ditu, eta baliabideok sare publikoan eta kontzertatuan banatuta daude. Erabilgarritasun-maila onargarri batek nahitaezko mugikortasuna ahalbidetuko du, baina edozein ikuspegitatik (hezkuntza, lana, gizartea,...) onartezinak diren beste ondorio batzuk sortu barik. Irakaskuntzaren barruko lan-ezegonkortasunaren arazo larria konpontzeko neurriak hartuko dira. Laneko gatazka horrek arreta sozial handiagoa merezi du, bere eremua gainditu eta gehienetan hezkuntza-arazo sakona izaten delako, eragin kaltegarria baitauka hezkuntza-arretan eragina duten alderdietan (koordinazioa, hezkuntza-proiektuaren jarraipena, ikasleen ezagupena, etab.).
- **Lanaren eta soldataren arteko apurka-apurkako konbergentzia, hezkuntza-sare desberdinetako irakasleen artean.** Ahalik eta lehenen, konbergentzia erreala lortu beharko da Euzkadiko hezkuntza-sare desberdinen artean, irakasleek ikastetxeen titularitatearen arabera dituzten lan- eta soldata-baldintzen arteko gorabehera handiak eta bidegabeak gaindituz. Euzkadiko irakasle guztien duintasuna lortzeko, beharrezkoa da onarpen sozial unibertsal hori, eta horrek, kudeaketaren autonomia eta antolaketa- nahiz titularitate-mailako aniztasuna kontuan hartuta, soldatetan eta lan-baldintzetan desberdintasun txikiak sor ditzake, baina inoiz ere neurri gabeko desberdintasunak.
- **Baliabide materialen optimizazioa, Hezkuntzan BPGri dagokionez egindako inbertsioaren gorakadarekin.** Estatuko %4,5eko eta Europar Batasuneko %5,0ko batez bestekoa gainditu eta Europa iparraldeko herrietako %9,5era iritsi behar da. Egindako lehenengo hausnarketaren arabera, Euzkadi bezalako herri batean hezkuntzan egindako inbertsioa Europako naziorik aurreratuenetan egiten denaren bestekoa izan behar da, esate baterako, Suedian, Norvegian edo Danimarkan egiten denaren bestekoa, eta horiek Barne Produktu Gordinaren (BPG) %9,5 bideratzen dute irakaskuntzara; Espainiako eta Frantziako estatuek, aldiz, azken urteotan horren aurkako joera izan eta inbertsio gero eta txikiagoa egin dute; iturri desberdinen arabera, hurrenez hurren, %5etik %4,5era eta %7,4tik %7ra jaitsi dira (hezkuntzara bideraturiko gastu publikoan). Azterketa zehatza egin behar da euskal gizarteak azken urteotan egindako inbertsioari buruz, eta horretan eskola-komunitateak eta gizarte osoak hartuko dute parte; izan ere, funtsezko elementua da geure eskola-sistemaren errealitatean eta horren prospekzio-joeretan oinarrituriko aurrekontu-neurriak hartzeko.
- **Hezkuntzako giza baliabideen eta aurrekontuen arrazionalizazioa.** Ageri-agerikoa da hezkuntzan inbertsio egokia egitea ezinbesteko baldintza dela, nahikoa izan ez arren, eskola-arrakasta bermatzeko. Aldi berean, egiaztatzeko modukoa da hezkuntza-kalitateak menpekotasun ugari dituela eta inbertsio ekonomikorik handiena egiten duten sistemak beti ez direla eraginkorrak euren errendimenduan, zeharkako konparazio-ikerketek agerian jarri dutenez. Hezkuntza-ekintzak gizarte baterako duen garrantzia eta beharrezko inbertsioaren kostua kontuan hartuta, beharrezkoa da kapitulu desberdinetara bideraturiko finantza-partidak etengabe berrikustea eta optimizatzea, horien

eraginkortasuna etengabe berrikusiz eta berraztertuz, moduluen, sareen, atalen, etapen, helburuen eta abarren arabera. Inbertsio guztien barruan, langileria buruzko kapitulua nabarmentzen da; izan ere, "sorreran" giza gaitasunen erabilera intentsiboa duen giza baliabideak sortzeko sektorea da. Hori guztia aintzat hartuta, komenigarria da hezkuntzan egindako inbertsioen jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak eta mailak zehaztea, horren erabateko optimizaziora hurbiltzeko.

- **Sare kontzertatuak finantzatzea, subsidiarotasun-dogmatismorik gabe (hori modu batera edo bestera ulertuta). Sareek hezkuntza-zerbitzu publikorako duten osagarritasunaren aldeko behin betiko apustua.**
- **Titularitatearen arabera sare-banaketa gainditzea, Euzkadiko administrazioaren tratamenduan oinarrituz..**
- **Hezkuntzako edozein finantziatorako lehentasunezko inbertsio soziala defendatzea, horrek gizarte osorako hobari unibertsala sortzen baitu, eta ez jasotzaile zuzenentzako, horien familientzako eta inplikaturiko hezkuntza-eragileentzako hobaria bakarrik.**
- **Hezkuntza-finantziatorako ekarpen sozialak bultzatzea eta sustatzea, sareen, etapen, zikloen eta abarren arabera.**
- **Ikastetxe publikoetarako kontratu-programen eredua finkatzeko aurrerapausoak ematea, hitzarmenekin bat etorriz, kalkulu-oinarri berrian oinarrituz eta giza baliabideak nahiz ikasleak desglosatuz.**
- **BEKEN euskal sistema berrantolatzea.**

5. ONDORIOAK

5.1- (ZER) Euskal Herri barrura eta kanpora irekitako Euskal Hezkuntza Sistema

Une historiko honetan, geure heziketa-sistemaren barruko hezkuntza-erronkak lehen aipatu diren jarraibideen inguruan bilduta daude. Jatorrian eta lehenasunetan anitza den hiritartasunaren integrazio sozialerako hezi behar da, konplexutasuna baztertu barik, baina sozializazioko elementu komunak bilatuz, era askotako eskariak betetzen dituen eskari oso anitza eta malgua erabilita. Eleaniztasuna eta kulturen arteko hezkuntza zeharkako gaiak izango dira ikastetxe eta hezkuntza-erakunde guztietan, eta horien dimentsio digitala ere kontuan hartuko da. Proiektuen hezkuntza-titularitatea gero eta garrantzi txikiagoko parametroa izango da, eta orain arteko eta finkatutako jarduketan oinarrituz erreferentziatzat eduki dezakeen kalitatearengatik soilik izango du garrantzia.

- **Bertoko Hezkuntza Sistema finkatzea, geure errealitate sozialean eta Euskal Hezkuntza Sistema bat behar izatean oinarrituz.** Euzkadiren eraikuntza soziala eta demokratikoa kontuan hartuta, horixe baita euskal hiritarrik gehien nahia, aurrerapausoak eman behar dira hezkuntza-sistema modernoaren eta aurreratuaren garapenean eta zimendatzean; sistema hori euskal gizartearen eskari gero eta handiagoei aurre egiteko sortuko da, eta gizarte horren ezaugarriak eleaniztasuna, aniztasuna eta hezkuntza-prozesuetako partaidetza dira. Oraingo hezkuntza-sistema Euzkadiko hezkuntza-komunitatearen hezkuntza-beharretara egokitu eta horiei erantzun egokia eman die; hala eta guztiz ere, orain arte egindako bidea Euzkadik XXI. mendean dituen hezkuntza-beharrizanak hobeto onartzen eta betetzen dituzten neurriekin osatu behar da.
- **Euskal inguruan sustraituriko hezkuntza lortzea, hiritarren eta familien partaidetza aktiboarekin sustatuz.** Euzkadin hezkuntzaren arloan dagoen dinamismo soziala garrantzi handiko fenomeno izan da Europako hezkuntza-panoraman, eta aipagarria da ekimen eta partaidetza sozialaren aldetik duen maila handia. Familiek hartutako konpromiso horren eragileak, bestalde, hasierako eskaintzan detektaturiko gabezieta oinarritzen dira, eta gabezia horiek zuzendu egin behar izan ziren, antolaketarekin, ikasketa-proiektuarekin eta metodologiarekin erlazionaturiko formatu berriak sortuz, eta horiek urteekin Euzkadiko eskola-panorama osoan sustraitu eta berori aldatu egin dute. Hala ere, bete gabeko eskariak daude oraindik, eta Euzkadiko hezkuntza-kalitatea orain ere hobetzeko modukoa da, baina dagoeneko ospe handia eta eskaintza-aniztasuna dauka inguruko sistemen artean. Hezkuntza-eragileek, erakundeek eta taldeek, baita hezkuntza-administrazioak eta aginte publiko guztiek ere, Euzkadiko ikasleen eta horien familien eskariak entzun beharko dituzte, horiei erantzun egokia emateko. Izan ere, ikasleek eta familiek ondo detektatu dituzte oraingo hezkuntza proposamenak aberastuko dituzten ezaugarriak.
- **Antolatzaileen, eragileen eta esfortzuen errentagarritasun sozialean oinarrituz orientaturiko eta gidatutako hezkuntza-sistema.** Euskal Hezkuntza Sistema osoa, berehala eta zehaztasun handiz, hemengo hiritarren

errentagarritasun sozial ahalik eta handiena lortzera bideratu behar da, giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatuz, Euzkadiko herri desberdinen zerbitzuan dauden ikastetxeen formulekin eta ereduekin, ikastetxeen titularitatea publikoa edo kontzertatua izan arren, baina hezkuntza-administrazioak eskaintza publiko bikaina bermatuko du beti, beste hezkuntza-erantzun egokirik gabe dauden lekuetan.

- **Arlo politikoaren, instituzionalen eta sozialen arteko koordinazio eraginkorra.** Hezkuntzako Txosten honetatik eskatzen eta irudikatzen dugun hezkuntza-sistema sortzeko, beharrezkoa da aginte publikoen erakundeen nahiz estamentuen eta titularitate pribatuko enpresen zein baliabideen arteko (orain arte euskal hezkuntza-sisteman esku hartu dutenak) ekintza bateratua eta kohesionatua. Eusko Jaurlearien, foru aldundien eta toki-korporazioen antolaketa espezializatuagoa eta koordinatuagoa, berriz, XXI. mendeko Euskal Hezkuntza Sistemaren egitura berriaren lehenengo pausoa izango da. Halaber, sareetan, ikastetxeetan eta enpresetan bildutako ekimen sozial guztia (sare publikoak duenaren antzeko esperientzia handiarekin) esfortzu bateratuan integratu behar da, Euzkadiko gizartea sustatzeko eragile nagusia izango den hezkuntza-proiektua lortzeko.
- **Euzkadiko “Hezkuntza Industriak” sortzea.** Hezkuntza-sektoreak Euzkadin izan beharreko garrantzia sozialak eta estrategikoak tratamendu instituzional berezia sortu behar du, “hezkuntza-industria” berrien sorrera sustatzeko (dagoeneko ezarrita dauden kultura-industrien antzekoak), eta horien jasotzaile nagusiak (baina ez bakarrak) ikasleak eta horien familiak izango dira. Hezkuntza digitalak komunikazio handiko gizarte planetario batean eskaintako aukera berriek, beste alde batetik, hezkuntza-sistema aurreratuenei eta lehiakorrenei mugak gainditzeko eta urruneko ikasleei heziketa-zerbitzuak eskaintzeko aukera emango dute (ordura arte sistema horren arretarik izan ez duten ikasleak). Hezkuntza-industria lehiakorrak, eraginkorrak eta sorberriak (lehendik ere badago, dimentsio txikiarekin, baina kalitate handiarekin), berriz, Euzkadi barrurantz eta kanporantz orientatuko du, euskal ikasleei egindako eskaintza hobetzeko eta, aldi berean, jasotzaile eta merkatu berriak aurkitzeko, edozein pertsonarentzat funtsezkoa den eginkizun horretan zerbitzua eskaini ahal izateko, pertsona horiek sarritan ez baitute kalitateko heziketa hornitzailerik euren inguruan, hezkuntza-proiektu bakoitzak bildu eta pilatu behar duen eskari eta profesionaltasun gero eta handiagoa aintzat hartuta.
- **Euzkadi hezkuntzako eta heziketako plataforma geostrategikoa.** Epe ertainean eta luzean, Euzkadiko hezkuntza-sarea, horren eredu, maila eta azpisare guztietan, erreferentziako plataforma izan behar da, giza baliabideen garapenaren eta heziketaren arloan. Euzkadik eta bertako erakunde nagusietariko batzuek, tradizio handia dute hezkuntza-ereduen esportazioan, eta atzerriko eskariei erantzuteko moduko faktore eta eragile bikainak dituzte heziketaren arloan; gainera, adin guztietako euskal hiritarrei prestakuntza egokia eskaintzeko helburu nagusiari ere erantzun egokia eman behar diote. Euskal gizartearen ezaugarrietariko batzuk kontuan hartuta, batez ere bertako hezkuntza-erakundearen ezaugarrietariko batzuk aintzat hartuz, berebiziko abiapuntua daukagu Euzkaditik kanpoko hezkuntza-eskuhartzea gauzatzeko. Euskaldunon eleaniztasuna, nazioarteko bokazioa, Europan kulturarik hegemonikoen artean duen kokalekua, kultura nahiz hizkuntza autoktonoekiko errespetua (horien trantsizioa eta modernatzea erraztuz), kontinente guztietan presentzia handia eragin duen esportazio-eraginkortasuna eta hezkuntzaren zein enpresaren arloko kalitate handia gainditu ezineko

propietateak dira etorkizun handiko hezkuntza-garapen hori sustatzeko, eta horrek, gainera, eragina izango du barne-zerbitzua hobetzean, eta gizarteek etorkizunean jasan dezaketen hezkuntza-kolonizazioa oztopatuko du.

- **Euskal Hezkuntza Sistema, Euzkadiko jasangarritasun sozialaren eta ekonomikoaren baldintzat.** Euzkadik nazioen elkarmenpeketasuneko eredu jasangarrian bizirik irauteko (Europako gainerako herriei dagokienez), beharrezkoa da Euskal Hezkuntza Sistema indartsua eta etorkizuneko edukitzea. Hezkuntzako Txosten honetatik, hezkuntza-sustraiak gizarte osoak berehala onartzeko aldarrikapena egiten da, berezko garapenaren funtsezko oinarritzat eta etorkizun komuna duten hiritarren komunitate integratuztat.
- **Autogobernua oinarrituz, euskal hiritarrek arreta bikainerako eskatzen duten hezkuntza-subiranotasuneko mailarantz aurrerapausoak ematea, Europako jarraibideak kontuan hartuz.** Hezkuntzaren arloa arautzen duen eremu juridikoa sakon berrikusi behar da, eta hori denon artean sustatu eta erabaki behar dugu, euskal hiritarrek euren hezkuntza-askatasuna betetzeko eta erabiltzeko behar eta nahi dituzten ereduak eta irizpideak askatasunez aukeratu ahal izateko. Estatuaren eremuaren eraginezko murriztapenak nabarmen hertsatzen dute hezkuntzaren arloko aurrerakuntzaren esangura, eta eskola-komunitateak hori Euzkadiren, hemengo ikasleen eta horien familien errealitate sozialaren eta kulturalaren arabera gauzatu nahi du. Euskal Hezkuntza Sistemaren etengabeko bilakaerak eta aurrerakuntzak lege-oztopo bat dauka aurrez-aurre, eta horrek mugatu egiten du kalitaterako bidea; gainera, agerian jartzen du murriztapenik gabeko hezkuntza-politika eduki behar dela, XXI. mendeko Europaren barruko Euzkadiren gaitasun osoa adierazteko, heziketaren, eskolaren eta kulturaren arloan. Autogobernuak hezkuntzaren arloan izandako jarduketak bikaintasun-maila lortu du, eta hori guztiz osatzeko, beharrezkoa da bidezkoak ez diren beste hezkuntza-errealitate batzuetatik eratorritako oztoporik saihestea, euskal hiritarrek eskatutako jarraibideetan oinarrituz, horiek ondo baitakite barruko nazioen hezkuntza- eta kultura-mailako desberdintasunekiko integratzailea eta errespetuzkoa den europar eredu baten barruan daudela.
- **Hezkuntzako Txosten honetatik, hezkuntza-autogobernua sakontzearen aldeko apustua egiten dugu,** euskal gizarteak eta bertako hezkuntza-eragileak eskolen barruko oraingo kalitate-maila gainditzeko gauza izango direlakoan, baldin eta atzeratuta dagoen eta oztopoak jartzen dituen legeriaren trabak gainditzeko badira, horrek Euzkadiko hiritarren eta familien hezkuntza-eskariei erantzun hobezina ematea ekidin baitu. Erabateko hezkuntza-askatasunerako borondatea guztiz bateragarria da bilgunerako europar bokazio handiarekin, heziketaren, kulturaren eta lanaren arloko sistemak parekatzeko, trukeko eta adostasuneko eremu komunean.

5.2- (NOLA) Hezkuntza-akordioa

EAJ-PNVko gizon-emakumeon hezkuntza-helburu pozgarria lortzeko biderik eraginkorrena eta onargarriena, sortu ere, Euzkadiko aniztasun soziala islatzen duen eskola-komunitate konplexuaren eta anitzaren barruko eragile nahiz sentsibilitate desberdinen arteko “hezkuntza-akordio” zabaletik sortzen da.

- **Eusko Jaurlaritzaren 2001-2005eko Akordioan jasotako “Hezkuntza Akordio” berri baten premiazko negoziatorako aurrerapausoak eman beharra** 2001-2005eko oraingo legegintzaldirako “gobernu-akordioan” ezarri zen; proposamen hori, hasieran, koalizioaren barruko bi alderdi nazionalistek sinatu eta, gero, hirukoaren barruko alderdi guztiek sinatu zuten (EAJ-PNV, EA eta IU-EB). Horrenbestez, aurrerapausoak emateko bidea finkatuta gelditu zen, eta horren ezaugarriak, Hezkuntzako Txosten honen ikuspegitik, hurrengo atalotan adieraziko ditugu, baina adostasunerako eta elkarriketarako dugun bokazioa agerian jarrita, eta horretarako, agiri honek publikoki azaltzen duen hasierako jarrera eskaintzen dugu.

Gure ustez, 1993ko “Eskola Ituna” hezkuntza-negoiazioa aurrekari bikaina da, eta horrek aurrerakuntza nabaria ekarri zuen hezkuntza-sistema osoaren kalitatera eta lehiakortasunera. Balorazio orokor positibo hori, gaur egun, Euzkadiko hezkuntza-eragile guztiek aho batez berresten dute, Ituna gutxi batzuk sinatu zuten arren, eta batzuk, gainera, berori aplikatzearen aurkaritza aktiboa egin zuten, hasiera-hasieratik. Hamarkada batean izandako garapenaren aurretiazko azterketak eta ebaluazioak agerian jarri du itundutakoaren muina Euskal Hezkuntza Sistema garaikidean guztiz sartu dela eta horren funtsezko zatia dela, Euskal Eskola Publikoari eta Irakasle Taldeei buruzko Legeen bitartez, baita finantziarioa arautzen duen araudiaren bidez ere.

- **Hezkuntza Akordioan “Eskola Ituna” gainditzea: aurretiazko betorik edo murriztapenik gabeko negoziatioa Euskal Hezkuntza Sistemarik onena lortzeko, dimentsio guztietan (titulazioak, ikasketa-proiektuak, programazioa eta, finantziarioa,...).** Hezkuntzako Txosten honetatik bidetzat proiektaturiko “Hezkuntza Akordioaren” helburua, izan ere, espektro zabaleko akordio politiko, sektorial eta sozial bikoitza lortzea da. Une historiko honetan, Hezkuntza bilgune politikorako eremua izan behar da, baina sistemaren eta bertako eragileen aniztasunaren berezko alderdirik hezitzaileenak ere oso garrantzitsuak dira. Euzkadiko eskola-komunitateak eginkizun aktiboagoa eta protagonista izan behar du “Hezkuntza Akordioaren” negoziatioetan; hala ere, gero, horren gauzapena eta babes legala adostasun ahalik eta handieneko dimentsio politikoarekin gertatu beharko da. Funtsezko edukietan Euzkadiko gehiengo sozialaren zatirik handienak onartzen duen hezkuntza-eredua lortu behar da, aurretiazko betorik eta murriztapenik gabeko negoziatioaren bitartez. Eremu juridikoak hezkuntza-sistemaren egituratze bikaina erraztu behar du, Euzkadiko hiritarrei zerbitzu ona emateko, hiritarren eta hezkuntza-eragileen borondateak gainditu ezineko mugarik gabeko trantsizio programatuarekin.

“Hezkuntza Akordioak” ikastetxe eta eskola-sare guztien finantziarioaren lerro nagusiak berariaz finkatuko ditu, baita dirulaguntza publiko hori jasotzeko baldintzak eta betekizunak ere, eta horien aldaketak apurka-apurka aplikatuko dira. Akordioak baldintzatuko dituzten betekizunak honako hauek izango dira: ikasleen eta familien hezkuntza-eskubideen errespetua, eta tratamendu zuzena eta orekatua, beharizanik handiena duten hezkuntza- eta gizarte-sektoreen finantziarioa bermatzeko. Bideratze soziala, politikoa eta hezkuntza-mailakoa sustatuko da, eragile eta erakunde guztien konpromisoaren bitartez, jarrera, ikuspegi eta interes desberdinen arteko transakzio-orekan.

- **Hezkuntza Akordioaren negoziazio-prozesuaren orientazioa, legegintzako eta arauzko garapena egiteko, eta horrek, gutxienez, “Hezkuntzako Euskal Legea” eta “Hezkuntza Finantziarioko Legea” onetsiko ditu.** “Hezkuntza Akordioaren” negoziazioaren helburua Euskal Eskola Publikoaren Legea osatzea izango da, horrek titularitate publikoa ez duten gainerako hezkuntza-erakundeak arauketarik gabe uzten baitzuen; halaber, horren finantziario-formulak segurtatu beharko ditu, hezkuntza-eragileei egonkortasuna emateko eta horien kalitatea bultzatzeko. “Hezkuntzako Euskal Legeak” sare publikoan eragina duten bidezko aldaketa guztiak jasoko ditu, horri lehiakortasun ahalik eta handiena emateko eta eskainitako zerbitzuan lehia lortzeko; horrela, Euzkadiko ikasle guztiak eskolatzeko plazak daudela bermatu beharko du, plaza horiek eskatzen diren neurrian.
- **Negoiazio osagarria beste erakunde publiko eta erakunde sozial batzuekin, “Hezkuntza Akordioari” agiri honetan jasotako pan-hezkuntzako dimentsioa emateko.** Negoiazio-prozesuak aurreikusita eduki beharko du “Hezkuntza Akordioaren” amaiera baino lehenagoko faseetarikoa batean hitzarturiko hezkuntza-protagonismoa duten instituzio edo erakunde guztien integrazioa edo partaidetza, horien adostasuna eta onespina lortzeko, berrespen publikoa egin baino lehen. Hezkuntzaren arloko lankidetzaren eta ekarpen horrek lehengo “Eskola Ituna” gainditu beharko du, eta gainera, hezkuntzaren arloan esku hartzen duten edo esku hartuko duten eragile sozial guztien pan-hezkuntzako etapa baten hasiera adieraziko du.

Amaitzeko, aditzera eman nahi dugu konfiantza osoa daukagula geure hezkuntza-eragileen gaitasunean, Hezkuntzako Txosten honetan proiektaturikoa bezalako singladura soziala arrakastaz bukatzeko. Gure ustez, aurrerakuntzako eta etorkizuneko bide sozial bakarra dago, hezkuntza, eta hezkuntza horrek etorkizuneko aurrerapausoak aurreikusi beharko ditu, bere buruarekiko etengabeko erronkan, Euzkadi XXI. mendeko abangoardia sozialera proiektatzeko.